

**ATZERRITARREI BURUZKO
LEGEAK PERTSONA
MIGRATZAILEEN
GIZARTERATZEAN DUEN ERAGINA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Ikaslea: Ane Albisu Arsuaga

Irakaslea: Maddalen Epelde

Ikasketak: Gizarte Langintzako gradua

Ikasturtea: 2019/2020

Entregatze-data: 2020ko ekainaren 23a

AURKIBIDEA

SARRERA.....	2
1. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK.....	3
1.1. Hipotesia	3
1.2. Helburuak.....	3
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Migrazioaren historia.....	5
2.1.1. Migrazio-mugimenduak mundu mailan	5
2.1.2. Migrazio-mugimenduak Espainian	8
2.2. Atzerritarrei buruzko Legearen historia.....	10
2.3. Egungo Atzerritarrei buruzko Legea: erregularizazioa	12
2.4. Atzerritarrei buruzko Legearen helburu teorikoa: gizarteratzea	18
2.5. Errealitatea: gizarteratzea eta bazterkeriaren artean: Legearen kritika eta eztabaidak.	19
2.6. Gizarteratze eremuak	21
3. METODOLOGIA	24
4. ANALISIA	29
4.1. Ekonomia (lana eta kontsumoa).....	30
4.2. Arlo politikoa eta hiritartasuna (politika, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna)....	34
4.3. Arlo soziala edo harremanezkoa (gatazka soziala edo isolamendu soziala).....	39
ONDORIOAK	42
BIBLIOGRAFIA	48
ERANSKINAK	52
I. ERANSKINA: Mariaren elkarrizketarako gidoia.....	53
II. ERANSKINA: Jeanen elkarrizketarako gidoia	55
III. ERANSKINA: Paularen elkarrizketarako gidoia.....	57
IV. ERANSKINA: Jazminen elkarrizketarako gidoia.....	59
V. ERANSKINA: Jazminen elkarrizketa.....	61
VI. ERANSKINA: Jeanen elkarrizketa.....	72
VII. ERANSKINA: Mariaren elkarrizketa	79
VIII. ERANSKINA: Paularen elkarrizketa	90

SARRERA

Gradu amaierako lan honek 4/2000 Atzerritarrei buruzko Legeak etorkinen gizarteratze-prozesuan dituen ondorioak aztertzea du xede. Immigrazioa historia osoan zehar errealitate bat izan bada ere, honen nolakotasuna aldatuz joan da urtez urte. Migrazio-fluxu horiek erregularizatzeko asmoz neurriak hartuz joan dira, eta besteak beste, Espainian, Atzerritarrei buruzko Legea sortu zen, immigrazio gorakadaren ondorioz hau erregulatu nahian. Lege honek etorkinen eskubide eta askatasunak zehazten dituen heinean, ezinbesteko eragina du haien bizitzan zein haien gizarteratze prozesuan. Horren aurrean, pertsona migratzaileen gizarteratze egoki baterako hezkuntza antiarrazistari ematen ari zaion pisuaz gain, instituzio eta legeen aldetik ere zein tratu ematen zaien eta zein ikuspuntutik eginda dauden ikusi eta aztertzea beharrezkoa da.

Lan honetan, beraz, alderdi legalari helduko zaio, 4/2000 Lege Organikoari hain zuzen, berez helburu duen gizarteratzeaz haratago, Legean zehazten diren eskubide zein askatasunak eskuratzeko baldintzak aztertu eta Legeak benetan etorkinen integrazioa ahalbidetzen duen ikertzeko asmoz. Lehenik, beraz, Legearen azterketa sakona egin da marko teorikoan. Ondoren, metodologia kualitatiboaren hautaketa egin da etorkinei beraiei ahotsa emateko, Atzerritarrei buruzko Legearen ondorioak jasotzen dituzten zuzeneko pertsonak baitira, eta aldi berean, beren gizarteratze-.prozesuari buruzko analisian ezinbestekoa baita euren ikuspuntu eta hitzak entzutea.

Legearen azterketa teoriko sakona egiteak eta bere aplikazioak etorkinengan duen eragina aztertzeak, lan honen hipotesiak kontrastatzeko bidea eman du, hots, atzerritarren legeak, oinarrian duen gizarteratze helburua urratuz, lan-kontraturik gabe iristen diren etorkinen gizarteratzea oztopatzen duela

1. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK

Lehen atal honetan Gradu Amaierako Lan honen oinarri izango diren hipotesia eta helburuak aipatu eta sakonduko dira.

1.1. Hipotesia

Lan honen hipotesiari dagokionez, Atzerritarrei buruzko Legeak, oinarrian duen gizarteratze helburua urratuz, lan-kontraturik gabe iristen diren etorkinen gizarte bazterketa indartzen duela planteatzen da. Izan ere, Legea egun ematen diren migrazio-mugimenduen nolakotasunarekin bat ez datorrela uste da, eta erantzun egokirik ematen ari ez dela, kalean eta bizi-baldintza txarretan immigrante kopuru handia utziz. Horrela, Legeak ezartzen dituen baldintza jakin batzuk betetzen ez dituzten horiei eskubide murriztuak geratzen zaizkiela, bazterketa egoera batera heltzeko aukerak areagotuz. Hori izango da, beraz, lan honek abiapuntu izango duen ildo eta nolabait ikerketaren bizkarrezurra. Hipotesia kontrastatu ahal izateko, jarraian hainbat helburu zehazten dira.

1.2. Helburuak

Lan honen helburuak zehaztuko dira jarraian, hipotesiaren arabera eginikoak. Horiek horrela, hiru dira helburu horiek:

1. Legeak atzerritarrak euren egoera juridikoa erregularizatzeko eskatzen dituen baldintzak aztertzea. Hau da, etorkinek beharrezko dokumentazioa eduki eta haien egoera erregularizatu ahal izateko Legeak baldintza jakin batzuk eskatzen dizkie immigrante horiei, eta betetzen ez dituztenak irregularrean uzten ditu. Beraz, baldintza horiek zein diren aztertuko da.
2. Baldintza horiek Espainiara datozen pertsona migratzaileen errealitatearekin alderatzea, eta, nolabait, horien irisgarritasuna neurtzea. Helburu honetan, beraz, egungo migrazio-mugimenduen nolakotasuna aztertuko da, eta migrazio hori

erregulatzeko dagoen Atzerritarrei buruzko Legea zein neurrira arte hurbiltzen den errealitate horri konponbidea ematera.

- Egoera irregularrean egoteak atzerritarren gizarteratze prozesuan eragiten dituen ondorioak ikertzea. Hau da, aipaturiko Legeko baldintzak betetzen ez dituzten, eta beraz, era irregularrean geratzen diren horiei, egoera juridiko horrek haien gizarteratzean zein ondorio dituen ikertuko da, Legeak nola eragiten dien haien gizarteratze-prozesuan.

Jarraian aurkezten den taulan lan honen oinarria izango diren hipotesi eta helburuak jasota geratzen dira:

1.Taula: Hipotesi eta helburuak

Hipotesia	Helburuak
1. Atzerritar legeak, oinarrian duen gizarteratze helburua urratuz, lan-kontraturik gabe iristen diren etorkinen gizarte bazterketa indartzen du.	1. Legeak atzerritarrak euren egoera juridikoa erregularizatzeko eskatzen dituen baldintzak aztertzea.
	2. Baldintza horiek Espainiara datozen pertsona migratzaileen errealitatearekin alderatzea eta nolabait, horien irisgarritasuna neurtzea.
	3. Egoera irregularrean egoteak atzerritarren gizarteratze prozesuan eragiten dituen ondorioak ikertzea.

Iturria: Egileak egina

2. MARKO TEORIKOA

Esparru teorikoa den atal honetan, lan honen analisisa bideratzen laguntzeko atal ezberdinak landuko dira.

2.1. Migrazioaren historia

Edozein gertakari edo fenomeno hobeto ulertzeko honen historia jakiteak laguntzen duen era berean, egungo migrazio-mugimenduen gaiari heldu aurretik hauen bilakaera historikoari helduko diogu. Horrela, lehenik testuinguru globalago bat aztertuko dugu, eta ondoren Espainiara hurbilduko gara.

2.1.1. Migrazio-mugimenduak mundu mailan

Historian zehar betidanik eman dira migrazio-mugimenduak, giza-ezaugarri bat izan da. Aldian aldi, hauek aldatuz joan dira, eta aldi bakoitzean behar, ezaugarri eta zergati ezberdinak bereiz daitezke. Horiek horrela, munduan zehar eman diren migrazio-mugimenduak antolatzeko, Barrosek (2016) lau garai ezberdin bereizten ditu:

I. Globalizazioaren aurretiko migrazioak (1492rarte).

Duela 150.000 urte inguruan Homo Sapiensen agerpenetik Afrika hegoaldean, gizakia planetan zehar mugitzen joan da. Horrela, hasiera batean nomadak izatetik, migrazio postmoderno sedentarioak lekualdaketa behartuak izatera pasa ziren, inbasio, konkista, kolonizazio eta kanporaketa kolektibo ezberdinengatik, baita arrazoi erlijioso eta komertzialengatik ere (Blanco, 2000, 35 or ; Barros 2016-an zitatua).

II. Migrazio modernoak (1492-1750): globalizazioa 1.0.

Garai honetako migrazio-mugimenduak 1492ko Amerikaren aurkikuntzak markatzen ditu. Horrela, Europa aldetik giza mugimendu handiak eman ziren eta ekonomia globalari hasiera eman zitzaion. Garai honetan Europako hainbat estatuk migrazio mugimendu hauek dominatu zituzten, Afrika, Asia, Amerika edota Ozeania bezalako lurralde handiak kolonizatuz. Horiek horrela, XVII. mendetik aurrera egoniko garraio aurrerapenek eta Amerika, Afrika eta Ozeaniako konkistek migrazio fluxu transozeanikoak areagotu zituzten (Cear, 2016, 5 or.).

III. Migrazio industrialak (1750-1973): globalizazioa 2.0


XVIII. mendeko bigarren erdialdean Ingalaterran egon zen Industria Iraultzak eta ondorenean Europan eta kolonizatutako herrialdetan garatuz joango denak markatu zituen garai honetako mugimenduak. Kolonizatutako herrialdeetako esplotazioak Europako herrialde kolonizatzaileak aberastu zituen, eta aberastasun ekonomiko honen ildotik hasi zen Industria Iraultza. Horiek horrela, fabrika hauetako langileen artean egoera prekarioen ohikotasuna zabaldu zen, eta honekin batera garraiobideetan eman ziren aurrerakuntzak zirela eta milioika europarren emigrazioa eman zen kolonizatu zituzten lurraldeetara. Aldi berean, Europa barnean ere Industrializazioa garatuago zegoen herrialdeetara migrazio-mugimenduak eman ziren lan bila. Migrazio mugimendu hauek Lehen Mundu Gerra (1914-1918) edota Bigarren Mundu Gerra (1936-1939) bezalako gudekin batera geldialdia izan zuten, eta migratzaileen profila errefuxiatuenera igaro zen eman ziren egoera politiko eta sozialak zirela eta.

IV. Migrazio globalak (1973tik aurrera): globalizazioa 3.0

1973ko Petrolioaren krisiaren ondorengo migrazio mugimenduen inguruan ari gara, honek sortu zuen inflazio altu eta langabeziaren ondorio izan zirenak. Horrela, globalizazio honen ezaugarriak honakoak dira: ekonomikoa (kapital finantzieroen, komertzialen eta produktuen zirkulazio librea), teknologikoa (garraio eta komunikazioaren gastuaren murrizketa nabarmenaren ondorioz berkolonizazio

industrialala eman da), politikoa (Nazio Batuen Erakundea edota izaera humanitarioa duten ONG ezberdinen sorkuntza), arriskuarena (berotze globala, klima aldaketa edota kutsadura bezalako arriskuak) eta migratorioa. Azken honi dagokionez, Blancoren (2000; Barros 2016-an zitatua) arabera, bi dira honen dimentsioak. Alde batetik, migratzaileen bolumenaren etengabeko “hazkundera”, eta ez azpigaratuetakoa herrialdeetatik garatutako herrialdeetara soilik, baita azpigaratuen artean ere (Gutierrez, 2013; Barros 2016-an zitatua), gehienbat garatutako herrialdeek ezarritako kontrol neurrien ondorio. Bigarrenik, sare eta migrazio moten hazkundera egon da, garai batean migrazio-mugimendu zehatzen bat nagusitzen zen bitartean, eta egun era guztietako migrazio-mugimenduak ikus ditzakegu.

1. Irudia: Migrazio-mugimenduak mundu mailan



Iturria: egileak egina

2.1.2. Migrazio-mugimenduak Espainian

Espainia barneko migrazio-mugimenduei begiratzen badiegu, hemen ere garapena hobeto ulertzeko hiru garai bana ditzakegu, eta bakoitzak bere ezaugarri propioak izan zituen (Barros, 2016):

I. Espainia, herrialde emigratzailea (1882-1977)

Mundu mailako migrazio-mugimenduei loturik, alde batetik kolonizatutako lurraldeetarako emigratio mugimendua nagusituko genuke, non horren ondorioz, hiru miloi eta erdi pertsona inguruk Amerikara emigratu zuten. Horiek horrela, garai honetan jomuga hori zutenak emigratzaile osoaren %85a osatzen zuten (Instituto Geográfico y Estadístico, en Sallé, 2009; Barros 2016-an zitatua). Bestalde, Espainia barnera begiratzen badugu, industrializazioak erabat baldintzatu zuen garaia izan zen, eta horrela, 1860. urte inguruan herrietatik hirietarako migrazioa hasi zen pixkanaka (González, 2019, 3-4 or.).

II. Immigrazioaren hiru hamarkada (1977-2008)


1973ko krisiaren ondorioz hainbat eta hainbat espainiar haien herrialdera bueltatu ziren. Aldi berean, 1977-1986 urteetako trantsizio demokratikoak egonkortasun politiko bati bidea eman ziolarik (diktaduratik demokraziara), egonkortasun ekonomikoa (nekazaritza industrial eta zerbitzuenera) eta soziala (asko hirietan kokatu eta klase ertainaren sorrerarekin), berriro ere gehiago ziren Espainiara zetozenak kanpora zihoazenak baino. Horren ondorioz, aurrerago aztertuko dugun Atzerritarrei buruzko Lege Organikoa sortzen da (7/1985), Espainian ematen ari zen aldaketa sozialaren aurrean emandako migrazio fluxuen aldaketaren ondorioz.

III. Migrazioak krisiaren testuinguruan (2008-gaur egun).

2009 eta 2015 urte tartean etorkin kopurua jaitsi egiten da krisia dela eta, hasiera batean jaitsiera hain handia izan ez den arren familiara berrelkartzea zela eta. Aldi berean, gazte

espainiar aktiboen emigrazio tasa igo egiten da jatorriko herrialdeko langabezia-tasa eta lan-baldintzen ondorioz (González, 2019, 24 or.). Halaber, aipamen berezia behar du azken hamarkadan bi miloi baina etorkin gehiagok Mediterraneoan gurutzatzen Europako kostara iritsi nahiaren gatazka, biolentzia, pertsekuzio eta pobreziatik ihesi (D'Angelo, 2018, 32 or.). Hauetako ehuneko oso altu bat era irregularrean iristen direlarik, Espainiako Gobernuak Barne-ministerioko (2019) datuek zera diote: Espainiara itsaso edo lurretik era irregularrean iritsitakoak 2018an 59.292 izan ziren, eta 2019an, berriz 29.775 izan dira, -%49,8-ko beherakadarekin.

2. Irudia: Migrazio-mugimenduak Espainian



Iturria: egileak egina.

2.2. Atzerritarrei buruzko Legearen historia

Ikusi dugun bezala, historian zehar migrazio-mugimenduak aldatuz joan dira, eta aldi berean, harrera gizartearen aldetik erregulatze bat egiteko beharra ikusi da, askotan atzerritarren iriste masiboen aurrean. Honela, zenbaitetan, etorkinen eskubideen aurka zihozten erregulazio edo Legeak sortuz joan ziren, eta jarraian Espainiako Atzerritarrei buruzko Legearen garapena ikusiko dugu, Lege bakoitzak etorkinen eskubide eta ongizatean zein eragin izan duen ikusiz.

Lege honen abiapuntua 1985. urtean kokatzen dela ikusiko dugu. Horiek horrela, 7/1985 Lege Organikoa dugu, uztailaren 1ekoa, Espainiako Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei buruzkoa (aurretik migrazioa erregulatzen zuten neurri ezberdinak bazeuden ere). Lege honek atzerritarren egoera administratiboaren eragin nabarmena izan zuen. Ondorio nagusia atzerritar asko irregular egoerara igarotzea izan zen, garai hartan migrazioaren gaian lan egiten zuten askoren kritika izan zena.

Honen edukiari erreparatzen badiogu, atzerritarren eskubideen inguruan oso zurrunda den Legea dela ikusiko dugu. Honen erakusgarri dugu konstituzio-kontrakotasun helegite baten aurkezpena, Legeko 4 artikuluren aurka, eta Auzitegi Konstituzionalak, 1987ko maiatzaren 11ko Sententzian aurretik aipaturiko artikuluetako 3 konstituzioaren aurkakotzat jo ziren. Horiek horrela, eskubidedun objektutzat Espainian legalki dauden atzerritarrak soilik hartzen dira. Bestalde, orduan ezartzen da egun arte ohiko praktika bihurtuko dena: bizileku-baimena eta lan-baimena dokumentu berean batera aurkeztearena. Azken eduki garrantzitsu bat aipatzearen, atal zigortzailean denbora luzean errepikatuko den eskema ezartzen da, non egonaldi irregularra edota eskaturiko dokumenturik gabe lurraldean sartzea bezalako zehapenen aurkako neurria ia eksklusiboki kanporatzearena izango dena.

Jarraian 4/2000 Lege Organikoa ageri zaigu, urtarrilaren 11koa, egun indarrean dagoena. 1996ko legegintza-hauteskundeetan eman zen gobernu aldaketaren ondoren Atzerritarrei buruzko Lege berri bat garatzeko eztabaida sortzen da. Azkenik, 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, onartzen da Partidu Popularraren oposizioarekin, Atzerritarren

Eskubide eta Askatasunei eta haien Gizarteratzeari buruzkoa. Edukiari erreparatuz, eskubideei buruz ari garenean pertsona irregularren oinarrizko eskubideen zabaltzea ematen da, honi baldintza berriztatzaile bat ezarriz: erroldatzea. Berrikuntza bat ageri da, beraz: errotze bidezko erregularizazioarena, modu irregularrean bi urtez ageri zirenentzat, bitzitza-euskarriak erakutsiz baimena lor zezaketelarik. Horiek horrela, Legean lehen aldiz irregulartasun egoeran zeuden pertsonentzat irtenbide *erreal* bat agertzen zaigu.

2000ko otsailera iristean, hauteskunde orokorrekin batera Partidu Popularrak gehiengo absolutua lortzen du, eta haren programa elektoralean ageri bezala aurreko Legearen erreformari ekiten dio: 8/2000 Lege Organikoari, abenduaren 22koa, bidea irekiz. Esan liteke bere garaian 1985eko Lege Organikoan ezarritakora buelta izan zela, hainbat eskubide egonaldi legalera soilik itzuliz. Horiek horrela, kritika ugari jaso zituen konstituzio-kontrakotasun errekurtsioa aurkeztu zen. Edukiari begira, besteak beste, irregular egoeran dauden pertsonen bi urte ordez bost eskatzen zaizkie erregular egoerara igaro ahal izateko.

Auzitegi Gorenaren sententzia aitzakiatzat hartuz 14/2003 Legea ezartzen da, abenduaren 22an indarrean sartuko zena. Edukiei erreparatuz, aspektu garrantzitsu bat honakoa da: haien jatorrizko herrialdera bidaiatu ezin dezaketen pertsonak zuzenean irregulartasun egoeran ezartzen dira, bizileku- eta lan-baimena lortzeko tramitazioak hasteko haien jatorrizko herrialdera bueltatu behar baitziren. Eusko Legebiltzarraren eskutik soilik aurkeztu zen Lege honen helegitea Auzitegi Konstituzionalaren aurrean.

Ondorengo erreforma dugu 2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa. Hau gehienbat 2007. urtean Auzitegi Konstituzionalak ezarritako sententzien ondorioz iritsi zen, 8/2000 Legeak 4/2000 Legearen gainean egindako erreformagatik. Aldi berean, European ezarritako neurriei egokitzeko beharraren ondorio ere izan zen. Lege honetan ikus daiteke iraupen luzeko bizilekua lortzeko 5 urte jarrairen aldi baterako bizilekuaren bidez lortzen dela. Lehen aldiz, gainera, etorkinen gizarteratzeari buruzko artikulua bat ageri da.

2.3. Egungo Atzerritarrei buruzko Legea: erregularizazioa

4/2000 Lege Organikoa dugu indarrean, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa. Lan honen abiapuntua den hipotesia atzerritarren legeak horien gizarte bazterkeria areagotzen duela izanik, eta hori kontrastatu nahi denez, Legeak atzerritarren egoera juridikoa erregularizatzeko eskatzen dituen baldintzak aztertuko ditugu jarraian, lehen helburua erantzunez.

Lege honen lehen artikuluan esparruaren zehaztea egiten da, eta dioenez, *Atzerritartzat joko dira, lege honen aplikazio ondoretarako, Espainiako naziotasunik ez dutenak* eta aldi berean, atzerritarren artean ere bereizketa bat egiten da, alde batetik Europar Batasuneko atzerritarrak eta bestetik bertatik kanpokoak bereiztuz: *Europar Batasuneko legeria aplikatuko zaie Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrei.*

Horiek horrela, Europar Batasun kanpotik datozen horien erregulatzearen inguruan, hiru egoera daude:

- Egonaldia: herrialdean 90 egun baina gutxiagoko egonaldia.
- Behin behineko bizilekua: Espainian 90 egun baino gehiago eta 5 urte baino gutxiagoko egonaldia.
- Behin betiko bizilekua: izaera mugagabea bizilekua edukitzeko baimena. Aldi baterako bizilekua bost urte jarraian eduki ondoren lor daiteke.

Hauetako egoera batean egoteko, eta beraz, erregulartasuna lortu eta Espainian legalki egon ahal izateko aurretik beharrezko baimen administratiboa lortzea eskatzen da, eta hauek lortzeko baldintza batzuk bete behar dira, kasuan kasu ezberdinak. Jarraian hauek aztertuko ditugu.

Behin behineko bizilekuari dagokionez, hau hiru motatakoa izan daiteke: ohikoa, berezia eta salbuespenekoa. Horiek horrela, eskatzen den baimenaren arabera, baldintza ezberdinak bete beharko dira:

I. Behin-behineko ohiko bizilekua: Bizileku-baimen hau lortu ahal izango dute:

- Haiek edota haien familiarrak mantentzeko beharrezkoak diren bizibideak dituzten horiek. Kasu honetan bizibide nahikoak dituela egiaztatu beharko du haren mantenu eta egonaldirako (familia izanez gero, haiena ere kontuan hartuz).
- Irabazteko asmoa duten jarduerak egiteko asmoa dutenak, beraientzat edo inorentzat, betiere lan egiteko beharrezkoa den baimena edukiz. Hau lortu ahal izateko, aipaturiko baimena duela erakutsi beharko du, bizileku- eta lan-baimenak lortuz. Hori aurrerago landuko dugu.
- Familiara berrelkartzearen eskubidea dutenak.


Aldi berean, aurretik aipatutako baimenak lortu ahal izateko, atzerritarra ezin da Espainiarentzat arriskutsua izan, eta hau erakutsi ahal izateko, lehenik, delituen ondoriozko zigor-aurrekaririk ez du izan behar, eta aldi berean, ezin da baimenduak ez dauden zerrendetan ageri. Aldi berean, gehienetan indarrean dagoen bizileku bisa eduki beharko dute. Horiek horrela, baimena berritu ahal izango dute, besteak beste, aurretik aipaturiko baldintzak betetzen jarraitzen badu.

- II. Bizileku-baimen berezia: aberrigabeak, agiririk gabekoak (inongo herrialdean), iheslariak eta adingabeak barnebiltzen ditu baimen honek.
- III. Salbuespeneko bizileku-baimena: Ez da kontuan hartuko lan egoera nazionala, eta salbuespeneko hiru egoera bereizten dira:

- Finkatzea. Bi motatakoa izan daiteke, lan arlokoa eta soziala. Lan arloko finkatzea egiaztatu ahal izateko, bi urte jarraiko egonaldia eta gutxienez urtebeteko lan harremanak erakutsi beharko ditu. Soziofamiliarri dagokionez, hiru urteko egonaldia eta gutxienez urtebeteko lan harremanak erakutsi beharko ditu, eta aldi berean, lokarri familiar zuzenak edota gizarteratzea erakusten duen udaleko txosten bat.
- Arrazoi humanitarioak. Egun irizpide administratiboak oso zorrotzak badira ere (Aguelo, 2009, 113 or.), arrazoi humanitariotzat hartzen dira, besteak beste, haien jaioterrian gatazka edo iskanbila politiko, etniko, beliko edota bestelakorik dagoen atzerritarrena, inskripzio-zedula aitortu zaiena, haien jatorriko herrialderako buelta arriskutsua izan daitekeenena, jatorrizko herrialdean lokarri pertsonalik ez dutenena eta haien herrialderako buelta eragozten dien gaixotasun edo ezinarena, betiere Espainian egin dela erakutsiz.
- Justiziarekin elkarlana.

Behin betiko bizilekua dugu ondoren. Honakoan, *Espainian iraupen mugaturik gabe bizitzea, eta espainiarren baldintza berberetan lan egitea* ahalbidetzen da. Horretaz gain, kanporaezina bihurtzen da, herri segurtasunaren aurkako egoerarik eman ezean. *Behin betiko bizilekurako eskubidea izango dute bost urte jarraian behin-behineko bizilekua izan dutenek 5 urte baina gutxiagoan lortzeko aukera ere ematen den arren, salbuespenez.*

3. **Irudia:** Etorkin erregularrak eta bizileku-baimena.



Iturria: egileak egina

Bizileku baimena lortzeko lanak duen garrantzia eta lan baimenari lotua dagoela ikusirik, lan baimena edukitzeko baldintzak ikusiko ditugu. *16 urtetik gorako atzerritarrek lan egiteko aurretiazko administrazio-baimena izan beharko dute, irabazteko asmoarekin edozein jarduera gauzatzeko, jarduera hori lan- edo lanbide-izaerakoa izan dio Legeak, eta administrazio-baimen hau lortzeko prozedura aztertuko dugu jarraian. Lehenik eta behin esan beharra dago oso datu garrantzitsua dela etorkinak non hasten duen prozesua: jatorrizko herrialdean ala Espainian, azken honek gauzak zailduko dituelarik. Izan ere, lan baimena eskuratu ahal izateko baldintzetako bat jatorrizko herrialdetik eskatzea da, baina honi aurrerago helduko diogu. Lehenik, bi lan baimen mota daude:*

- Beregainean lan egiteko baimena. Hau lortzeko baldintza jakin batzuk bete behar dira: zure jarduna gauzatzeko nahikoa kualifikazio edukitzea, finantzaketa nahikoa duzula ziurtatzea, negozio-plana, bideragarritasun ebaluazioaren txostena eta Espainian autonomo bezala alta ematea.
- Inorentzat lan egiteko baimena. *Kontuan hartuko da enpleguaren egoera nazionala. Lan-baimenak bost urtetik beherako iraupena izango du, eta lurralde,*

sektore edo jarduera jakin batera mugatu ahal izango da. Baimen hau, beraz, enpresa batean lana aurkitu duten horientzako dago zuzendua, eta enpresa prest egon behar da eskaera prozesuari ekiteko. Horiek horrela, hau lortzeko ere bi baldintza bete behar dira:

- Alde batetik, eskaera prozesuari ekitean ezin zarela Espainian bertan egon bizileku baimenik gabe, lana lortu ahal izateko legalki egon behar baita.
- Bestetik, zure jatorrizko herrialdetik egiten baduzu prozesua eta lan eskaintza bat jasotzen baduzu, izan liteke lehentasuna ez edukitzea lanpostu hori betetzeko. Horrela, 2008ko krisitik aurrera atzerritarrei eskaintzeko lan eta ogibide aukerak gutxituz joan ziren (Espainiako langabezia-tasa jaisteko asmotan), eta beraz, INEM erakundeak argitaratzen duen zerrenden barnean egon behar da lanpostua.

Lan-baimena lortzeko, halaber, prozedura honetatik at dagoen egoera bat dago: Espainian 3 urtez zehar egoera irregularrean bizitzen egon bazara, lan-baimena lor dezakezu errotze izeneko prozedura bidez, zeina hiru motatakoa den:

2. Taula: Errotze-motak

Errotze-mota	Gutxieneko egonaldia	Gutxieneko lan baldintzak	Aparteko baldintza
Lan-errotzea	2 urte	1 urteko lan-kontratua	Lana eduki izana
Familia-errotzea	3 urte	1 urteko lan-kontratua	Familia-harreman zuzenak edukitzea
Errotze soziala	3 urte	1 urteko lan-kontratua	Gizarteratzea erakusten duen udaleko txostena

Iturria: Egileak egina, Atzerritarrei buruzko Legearen informazioa erabiliz.

Hauek dira, beraz, Espainian modu erregularren, eta beraz, legalki egoteko bete beharreko baldintzak eta egoerak. Hauek bete ezean, irregular eta era ilegalean geratzen da atzerritarra, eta Legeak 53. artikuluan zehazten duen modura, *arau-hauste astuntzat hartzen da Espainiako lurraldean modu irregularrean egotea, egonaldiaren luzapena ez lortzeagatik, bizileku baimenik ez izateagatik edo baimen hori iraungita izateagatik hiru hilabete baino gehiagoz, eta interesdunak baimen hori erregelamendu bidez ezarritako epean berriztatzea ez eskatzeagatik.*

Atzerritarrei buruzko Legearen inguruan ari gara, baina hau testuinguru batean kokatuta dagoelarik, eta historian ikusi dugun bezala Europako arautegira moldatuta dagoelarik, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean gizaki guztiei zuzenduriko eskubideak ageri zaizkigu, eta beraz, baita era irregularrean geratzen diren horiena ere. Honakoak dira: giza duintasuna, hezkuntzarako eskubidea (eskubide honen baitan sartzen da nahitaezko hezkuntza doan jaso ahal izatea), lan-baldintza zuzen eta bidezkoak, osasunaren babesa eta babes judizial eragingarria eta epaile inpartziala izateko eskubidea

Legera salto eginez, etorkin irregularrek oinarrizko gizarte zerbitzuetarako eskubidea dute, biztanleria osoari zuzenduak, haien ezaugarri sozial edo demografikoetatik bereiziz. Lehen arreta mailakoak dira, edozein eskaera edo beharren aurrean erantzuna udaletxe edota autonomia erkidegoek erantzuten dutelarik, larrialdi sozialeko egoeran. Horrela, etxebizitza arreta, jantokia, 18 urte artekoentzako zentro irekiak eta larrialdiko laguntzak aurki ditzakegu.

Egoera irregularrean dagoen pertsona edozein udalerritan errolda daiteke (honetarako baldintzak bakoitzaren arabera aldatzen dira), eta honela, osasun edo hezkuntza laguntzara sartu ahal dira. Horiek horrela, zenbait autonomia erkidegoetan laguntza ekonomiko jakin batzuetarako eskubidea dute, jantoki edota eskolako materialerako beka bidez, beste zenbaitetan laguntza hauetatik kanpo geratzen direlarik guraso irregularrak. Laguntza hauetaz gain, herri ezberdinetan zaurgarritasun egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten erakundeak aurki ditzakegu (Gurutze Gorria, Cáritas, Harrera Sarea...), haien egoera administratiboa kontuan hartu gabe (Inglada, Sastre & De Miguel, 2019, 121-122 or.).

2.4. Atzerritarrei buruzko Legearen helburu teorikoa: gizarteratzea

Legean bertan aipatzen den gizarteratze terminoa: 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa da, eta baita Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa ere. Halaber, Legeak urteetan zehar ez zuen ezer gehiago esaten haren edukian azken helburu honi buruz, hau zehaztea zaila zelarik, esaldi bat salbu: “haien integrazio sozialerako irakaskuntza, haien identitate kulturalaren aitortpen eta errespetuarekin”. Horiek horrela, gizarteratze eredu ezberdinen alde on eta txarrak alderatzen joan ziren: multikulturalismoa edota asimilazioa, besteak beste. 2005. urtean, Atzerritarren Harrera eta Gizarteratzeko Babes Fondoa sortu zen, erakunde sare garrantzitsu bat sortuz, bai helburu eta baita koordinazioagatik ere, izenburuak barnebiltzen duen bezala, atzerritarren gizarteratzea helburu nagusi izanez.

2/2009 Lege Organikoa iritsi zen orduan, eta hau, Ajak dioen bezala (2011, 26 or.), Atzerritarrei buruzko Legea izateaz gain, Immigrazio Legea ere bazen, elkarbizitzaren aspektu garrantzitsuak ere barnebiltzen zituelako. Horiek horrela, gizarteratzea printzipio orokor bezala izendatu zen, eta Legean zehar hainbat artikulua ezarri ziren gizarteratze honi begira, orohar gizarte osoari zuzenduriko zeharkako politika bitartez.

Legea atzerritarren gizarteratzeari buruz ari denean, del Morenok adierazten duen bezala (2005, 152 or.), bigarren bereizketa bat egitea komenigarria da:

- Espainian haien egonaldia edo bizilekua baimendua dutenak. Legearen artikulua hauei zuzenduak daude gehienbat, eta gainontzeko hiritarren askatasun eta behar alderagarriagoak izateko aukera gehiago dute.
- Era irregularrean aurkitzen diren atzerritarrak.

Izan ere, Legeak gizarteratzea helburu duen arren, eta zati zehatz batzuetan gai honi heltzen dion arren, betiere atzerritar guztien zati bati zuzendua egiten du: era erregularrean dauden atzerritarrak. Aldi berean, beraz, atzerritar irregularrak alde batera

uzten ditu, eta haien inguruan aurreko zatian aipaturiko eskubide zehatz batzuk soilik aitortzen zaizkie, gizarteratzeari buruz aipamenik egiten ez den bitartean. Horiek horrela, beraz, kontraesan bat eman daiteke, azken finean Legeak atzerritarren gizarteratzea sustatzea helburu duelako, baina artikulua horietaz gozatu ahal izateko, baldintza zehatz batzuk eskatzen dituelako: aurretik aipatu ditugunak, zeinak, aurrerago ikusiko ditugun bezala, ez diren edonolakoak eta hauek betetzea askorentzat zaila bihur daitekeen. Beraz, laburbilduz, gizarteratzea sustatzen duten politika, ideia eta ekintzen hartzaile izateko, baldintza batzuk bete behar dira.

2.5. Errealitatea: gizarteratzea eta bazterkeriaren artean: Legearen kritika eta eztabaidak.

Lan honen hipotesia Atzerritarrei buruzko Legeak gizarteratzea baino bazterketa sortzen duela izanik, jarraian gaian adituak diren profesionalen iritzi eta ikuspuntuak bilduko dira.

Alde batetik, bizileku- eta lan-baimenaren arloa dugu. Atzerritarrei buruzko Legea ezberdintasunaren instituzionalizazioa dela baieztatzen du Es Racismok (2018), pertsona atzerritarrak hiru urtez era irregularrean egotera behartzen baititu haien egoera erregularizatu ahal izateko, errotzearen prozesu konplexu baten bidez. “Tranpa duen Legea da, zeinak lan-kontratu bat eskaintzen dizun, baina lan egitea debekatzen dizun. Horregatik, alta eman gabe egin behar duzu lan bizirauteko, babes gabe, eskubide gabe.” Horiek horrela, pertsona etorkinak esplotazio eta ikusezin bihurtzera kondenatzen dituen Legea dela adierazten du. Aldi berean, behin egoera erregularizatzea lortzean eta bizileku-baimena duzunean lana urtebetez aldatu ezin duzula salatzen du.

Ildo bera jarraitzen du Pilar Luquek (2017), Pro Inmigrantes de Cordoba erakundeko kideak. Haren aburuz, Legea ez da gai Espainian dokumenturik gabe dauden etorkinen egoerari erantzuna emateko. Izan ere, baldintza paradoxikoa du oinarri Legeak: pertsona haren jatorrizko lurraldean kontratatu dela suposatzen da, eta Espainiara iristean haren egoera erregularizatzen duela. Halaber, errealitatek oso urrun geratzen da hau. Egun erregularizatzeko gehien erabiltzen dena errotze sozialarena da, baldintza askotaz gain,

Espainian jarraian 3 urteko egonaldia eskatzen duena, hiru urte dokumentaziorik gabe.

Honela dio:

*“Imajina ditzagun momentu batez gure bizitzako hiru urte dokumentazio gabe, atzerriko herrialde batean, egoera prekarioan lan **egitera** behartzen zaituena, legetik kanpo eta lan eskubide zein eskubide sozialak ez diren existitzen. Abusuak jasotzeko aukera handiekin, dokumentazioa eskatuko diguten beldur kalera irteteko ausardiarik gabe, hala gertatuz gero, askatasun gabeko etorkinen zentro batean sartuko dituztelako.” (Luque, 2017)*

Egun, beraz, etorkinei buruz ari garenean, ezin gara eskubide osoa duten pertsonen buruz aritu.

SOS Arrazakeria elkarteko kide den Paco Torresek (2011) eskubideen inguruan azaltzen duenez, Europako legegintzak eskubideen orden hierarkiko bat ezartzen duela dio, eta era orokorrean, hiru eskubide subjektu ezberdin bereizten direla: paperik gabeko etorkina, era erregularrean dagoen etorkina eta biztanlea. Espainian, Atzerritarrei buruzko Legeak, duen izena alde batera utziz, eskubide eta askatasunen Legea baino, arau -txar- bat dela dio, sarreren erregulatuzailea, egoerena eta zehapenena. Horiek horrela, eskubideen hierarkian behean dauden horiek dira etorkin irregularrei dagozkienak, zeinak Europar oinarritzko eskubide subjektibotzat hartzen diren. Horrela, etorkinek autoktonoen betebeharrak izan ohi dituzte; eskubideen onarpenerako, halaber, baldintzak ezartzen dira, eta honek bazterketa sor dezake. Horregatik, estatuak etorkinei bertakoen eskubide berak baimentzen ez dizkien bitartean, gizarteratzea partziala izango da (Arango & Sandell, 2004, 47 or.).

Legean ez barneratzeak gizarteratzearen edozein esfortzu deseustatzen du. Gizarteak eskaintzen dituen zerbitzu ezberdinetara sarbidea izateko aitortpen legala aurretiko baldintza baita, salbuespenak salbuespen (Arango & Sandell, 2004, 47 or.). Ildo beretik, baldintzak betetze hori etorkinen ekarpen ekonomikoan oinarritzen da, aberastasuna dakarren lan-eskua bilatzen baita. Horregatik, Espainian bizi nahi duen atzerritarren beharrezkoak diren bizibideak edukitzea eskatzen zaio, edota haren ekarpen ekonomikoak erakusten duen lan-kontratu bat. Aldi berean, Atzerritarren Gizarteratze Sozialerako Planak baieztatzen duen bezala, okupazio egonkortasuna beharrezkoa da, ez soilik

gizarteratzerako: baita bizilekurako ere. Egia da, lan-baldintzei begira, lan-kontratuari ematen zaion garrantzia onuragarria dela, etorkinaren lana legalki eta baldintza batzuen pean emango dela ziurtatzen baita. Baina kontua ez da hori: gizarteratze sozio-laborala eta neurrien zorrotasunaren arteko kontraesana baizik. Izan ere, lan-kontratua eskatzeak hau lortu ezin duenaren desoreka sortzen du. Are gehiago, arauak berak dokumentu gabeak sortzen ditu, hau da, berritzeko momentuan okupazio formal bat erakutsi ezin duen etorkina ilegal bihurtzen du (Torres, 2011). Baldintza hauetan ia ezinezko bihurtzen da lan (duin) bat aurkitzea. Egoera honek, horrela, gizarte bazterketarako arriskua areagotzen du, eta bestetik, irregulartasun egoera horrek osasun mentalaren galera batera daramatza, estresa eta antsietatetik eratorrita, herrialdetik kanporatuta izanaren beldurratik. Aldi berean, osasun publikoak eskaintzen dituen zerbitzu askorako sarbiderik ez izatea dakar, eta immigrazio irregular eta ezkutuko ekonomiaren hazkundera nagusitzen dira (EAPN-ES; Fundación Secretariado Gitano; Centro de Estudios Económicos Tomillo; EAPN-Madrid & ACCEM; Agrupación de Desarrollo Los Molinos, 2014, 25 or.).

2.6. Gizarteratze eremuak

Aurretik ikusi dugun bezala, Atzerritarrei buruzko Legearen helburuetako bat gizarteratzea da, eta honi loturik, jarraian gizarteratzea zer den eta honen eduki teorikoak azalduko dira. Gizarteratzearen definizioarekin hasiz, Euskaltzaindiaren hiztegiak *gizartean txertatu* bezala definitzen du kontzeptua.

Gizarteratzearen aurkako hitza bazterketa dugu, gizarteratu-baztertu binomioa osatzen dutenak. Ali Souradjouek (2012, 655 or.) pobreziarekin lotzen du bazterketa soziala, eta diotenaren arabera, normalean pertsona edo talde sozialen ezaugarriak zehazten dituzten kausa eta efektu harremanak egon ohi dira. Horiek horrela, estatus soziala baloratua den gizarte batean diru-sarrera baxuak pobreziarekiko ikuspuntua baldintzatzen du, baina baliabide falta eta aitorten sozial falta batzen direnean, ikuspuntua gehiago hurbiltzen da bazterketa egoerara. Hau da, baliabide faltari (ezberdintasun ekonomikoak) osasun, hezkuntza edota beste gizarte zerbitzuetarako sarbide murriztua gehitzen badiegu, gizarte bazterkeriaren faktoreei buruz ari gara normalean. Horiek horrela, lan merkaturako

sarbide ezberdinak daudenean edota beste babes sozial batzuetarako, beste pertsona kategorientzako, diskriminazioaz ari gara, zehazki ekonomiari buruz ari ez bagara ere. Ali Souradjoueren (2012, 655 or.) esanetan, izan ere, gizarte industrial batean baliagarria litzateke dimentsio ekonomikoa banako edo talde sozialen integraziorako, baina gizarte kontenporaneo, postindustrial eta globalizatueta, bazterketa alde ekonomikotik haratago doa (Camacho, 2014, 209 or.). Ikuspegi honekin, gizarteratzearen ikuspuntua ere zabaldu egiten da eta hiritartasun unibertsala, beharizan jakin batzuk aseak izateko aitorpen eta segurtasuna eta behar edo eskubide bezala definitzen diren kontzeptuen definizio zehatzak beharrezko ikusten dira (Aguacil, 2008, 18-22; Camacho 2014-an zitatua).

Gizarte bazterkeria, beraz, multidimentsionala da, eta adierazle ezberdinak ditu. 2019ko FOESSA txostenean hiru ardatz bereizten dituzte bazterketa egoera zehazterako orduan: ekonomikoa (lana eta kontsumoa), politikoa eta hiritartasuna (politika, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna) eta soziala edo harremanezkoa (gatazka soziala edo isolamendu soziala) (Foessa, 2019).

Egungo gizarte konplexuetan lan ordainduak gizarteratzearen elementu bakar eta zentrala izateari utzi dion arren, egun berebiziko garrantzia duen elementua izaten jarraitzen du. Hain zuzen ere, lanik ez edukitzea bazterketa eta pobrezia egoerak garatzeko oinarrizko faktorea da (Camacho, 2014, 211 or.). Horiek horrela, lan duin baten eta pertsona guztiak (gehienbat zaurgarritasun egoeran daudenak) barnebiltzen dituen lan merkatu bat beharrezkoak dira Giza Eskubideen garapenerako, eta beraz, Espainiar Estatuak Giza Eskubideen materian bere gain harturikoa betetzeko obligazioa. Izan ere, instituzio internazional askok lana eskubide bezala jasotzen dute. Autore horiek ere ados daude lana gizarteratzeko oinarrizko faktorea dela gure gizartean, eta eskubide bat den heinean, bermea dela, edo izan beharko litzatekeela. Izan ere, beharizan pertsonal eta familiarrak asetzeko baliabideetarako sarbidea eskaintzen du, bizitza duin bat bermatzea eta babes sozialerako atea irekitzen du. Aldi berean, partaidetza iturri da, identitatearena, boterearena eta etengabeko formakuntzarena (EAPN-ES; Fundación Secretariado Gitano; Centro de Estudios Económicos Tomillo; EAPN-Madrid; ACCEM; Agrupación de Desarrollo Los Molinos, 2014, 3-4 or.). Lana kontzeptu zabala da, eta garrantzitsua da

lan horrek gizarteratzea lagun dezan lan duina izatea. Horregatik, Organización Internacional del Trabajo (OIT)-k, honako baldintzak bete behar direla dio:

- Pertsonen xedeak asetzen ditu haien lan bizitzan
- Aukerak ematen ditu lana produktiboa izan dadin eta sarrera duinak izan ditzan
- Segurtasuna bermatzen du lan eremuan eta babes soziala familiarentzat
- Garapen pertsonal eta lan garapenari bidea ematen dio
- Iritziak adierazteko askatasuna ematen du
- Aukera eta tratu berdintasuna ematen du gizonentzat eta emakumeentzat.

3. METODOLOGIA

Ikerketa honetan metodologia kualitatiboa erabiltzeko hautua egin da, abiapuntu duen hipotesi eta helburuak erantzuteko biderik egokiena baita. Alde batetik legediaren errebisio sakona eskatzen dute planteatutako helburuek (1 eta 2), eta zentzu horretan beharrezkoa izango da errebisio bibliografikoaren teknikaz baliatzea eta indarrean dagoen legediaren azterketa sakona burutzea (marko teorikoaren atalean burutu dena). Bestalde, pertsona migratzaileen errealitate zehatzak ezagutzea ere beharrezkoa suertatzen da helburuei erantzun ahal izateko (2 eta 3), eta horretarako teknika baliagarria liteke elkarrizketarena. Horren bidez, pertsona horiek beraien migrazio prozesuetan eta harrera gizartean bizitako esperientziak ezagutu ahalko dira eta egungo legediak euren ibilbideetan nolako eragina izan duen galdetu ahalko zaie. Beraz, metodologia barnetik eginkoa izatea egokia da, banakotasuna eta subjektibotasuna nagusitzen dituena (Abalde & Muñoz, 1992, 94.or). Horrenbestez, pertsona gutxiagorengana helduz gaia sakonago aztertzeko aukera emango digu metodologia honek, eta lan honetarako, bi teknika mota ikusi dira egokitzat:

- Elkarrizketa sakona. Teknika honek helburuei erantzuteko beharrezko informazioa jasotzeko aukera ematen du, eta hainbatetan espero ez diren ñabardurak jasotzeko aukera ere bai, ikerketa osotzeko interesgarriak direnak (Chicarro, 2003, 4. or). Gaiari adituak diren pertsonen aldetik ikuspuntu eta iritzi ezberdinak jasotzea bilatzen da, zeintzuek ezagutza eta esperientzian oinarritutako erantzuna eman dezaketen, eta norbanako baten esperientzia edo ikuspuntutik haratago iristea lor daiteke, pertsona askok ikerketa-gaiaren inguruan dituzten bizipenak baitituzte. Aldi berean, gaia lehen pertsonan jasotzen duten horiei ere elkarrizketa egitea egokia dela ikusi da, haien ikuspuntua oso kontuan eduki beharreko zerbait baita, eta gutxitan entzundakoa, baina informazio asko ahalbidetu dezakeena.
- Errebisio bibliografikoa. Lehenengo eta bigarren helburuak lortze aldera gaiarekin erlazionatutako informazioa biltzeko eta gaiaren inguruko ezagutza zabaltzeko gaiari adituak diren beste hainbat autorek eta egilek bildutakoa jasotzea

izango litzateke. Izan ere, Atzerritarrei buruzko Legearen inguruko ikerketa den heinean, Lege horren errebisio eta azterketa beharrezkoa izango da. Aldi berean, immigrazioaren errealitateaz eta egungo migrazio-mugimenduen nondik norakoaz ere edukia bildu eta jasotzea ezinbestekoa izango da bigarren helburua lortze aldera.

3.Taula: Metodologia eta helburuak.

Errebisio bibliografikoa	1. Helburua: Legeak atzerritarrek euren egoera juridikoa erregularizatzeko eskatzen dituen baldintzak aztertzea.
	2. Helburua: Baldintza horiek Espainiara datozen pertsona migratzaileen errealitatearekin alderatzea eta nolabait, horien lorgarritasuna neurtzea.
Elkarrizketa sakona	2. Helburua: Baldintza horiek Espainiara datozen pertsona migratzaileen errealitatearekin alderatzea eta nolabait, horien lorgarritasuna neurtzea.
	3. Helburua: Egoera irregularrean egoteak atzerritarren gizarteratze prozesuan eragiten dituen ondorioak ikertzea.

Horiek horrela, lau elkarrizketa egitea erabaki da:

1. Maria. Gizarte esku-hartzetako teknikaria, gizarte langilea, Gurutze Gorriko Gizarteratzeko Etxebizitzak Laguntzarekin programako langilea.¹ Programa honetan gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonak dira erabiltzaile, eta hauek denak etorkinak dira, baliabideen hartzailen gehiengoa irregulartasun egoeran dagoelarik. Bere jarduna immigrante horien gizarteratzean eta autonomia eskuratzean oinarritzen da, honek eskatzen duen esku-hartze multidimentsionalarekin.

¹ Informazio gehiago eskuragarri esteka honetan:

<http://www.cruzroja.es/principal/web/provincial-gipuzkoa/inmigrantes-y-refugiados>

2. Jean. Mbolu Moya Doole, Bizkaiako Manteroen Aldeko Elkarteko kide den senegaldarra. Migrazio-prozesuaren hasieran era irregularrean egondakoa, eta orain era erregularrean dagoena, eta asoziatioko kide diren manteroekin batera haien eskubideen alde borrokan dabil.
3. Paula. SOS Racismo Madrileko presidentea. Txiletarra, aktibista antiarrazista, feminista eta animalista. Arrazakeria instituzionalaren aurkako borrokaren garrantzia azpimarratzen da elkartean, dimentsio soziala, politikoa zein legala kontuan hartu behar direla adieraziz.
4. Jazmin. Marokoa, emakumea eta ama. Jatorkin elkarteko kide den emakume atzerritarra, era irregularrean dagoena eta 2017an heldu zena. Feminismo antiarrazistan aktibista da, diskriminazio bikoitza jasaten duten eskubideen alde borrokatzen du.

Ikus daitekeenez, beraz, elkarrizketatuak egunerokoan atzerritarrei buruzko legea oso presente duten pertsonak izatea erabaki da, eta garrantzia eman nahi izan zaio etorkinak beraiek entzuteari eta haien ahotsei indarra emateari, eurak direlako ikerketa honen protagonistak, Atzerritarrei buruzko Legeak zuzenean eragiten dienak. Izan ere, haiei buruzko Legeari eta haien gizarteratze/bazterketari buruz ari gara, beraz, haien hitza entzutea ezinbestekoa da gai honen inguruan ikertzeko eta aztertzeko. Gainera, horietako bat gizonezkoa, eta beste biak emakumezkoak izatea erabaki da, genero perspektiba txertatzeko asmoz, Lege berdinak ez baitie modu berdinean eragingo gizon eta emakumeei, eta bi alderdi horiek kontuan hartzea interesgarria eta ezinbestekoa da.

Aldi berean, pertsona horiei gizarteratze prozesuan laguntzen dien langile profesionalaren iritzi eta ikuspuntua entzutea ere interesgarria ikusi da, gaian aditua izanik eta bere egunerokotasunean atzerritar ugariren kasuak gertutik jarraitzen dituelarik eman dezakeen informazio baliotsua dela eta. Etorkinek, beraz, Lege honen eragina, eta ustez sortzen duen bazterkeria lehen pertsonan eta era zuzenean jasaten dute, eta bestetik, etorkinen gizarteratzearen alde jardunean dabilen langileak, laneko esku-hartzea Legeak

erabat baldintzatzen du. Bi perfil ezberdin hartzeak dakarren ikuspuntu eta informazio ezberdintasuna bilatzen da honen bidez, ondoren hipotesia kontrastatzerako eta helburuak erantzuteko garaian ahalik eta informazio zabalena edukitze aldera.

Lauei elkarrizketa sakona gauzatuko zaie, haien onarpenarekin, eta perfil ezberdintasuna kontuan izanik, elkarrizketa-gidoia ere halakoa izango da, profesional eta etorkinena ezberdina izango delarik². Aipatzekoa da, lanaren erraztasunerako eta komunikazio ulergarriagoari begira, gaztelania hizkuntza ondo menperatzen duten hiru etorkin aukeratu direla, gaian ahalik eta gehien sakondu ahal izate aldera.

² I.Eranskinean ikusgai

4.Taula: Elkarrizketatuak

Elkarrizketatua ³	Profila	Elkarrizketa-data
Maria	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte esku-hartzeko teknikaria. ▪ Etorkinen gizarteratzea helburu duen ogibidea duena, bai familia zein gizonena. 	2020ko martxoaren 30a
Jean	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Senegaldarra. ▪ Mbolo Moye Doole, manteroen aldeko elkarteko kidea. ▪ Era irregularrean dauden etorkinen eskubideen alde borrokan. 	2020ko martxoaren 29a
Paula	<ul style="list-style-type: none"> ▪ SOS Racismo Madridenteko presidentea. ▪ Aktibista antiarrazista, feminista eta animalista. ▪ Txiletarra. 	2020ko apirilaren 1a
Jazmin	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Emakume marokoarra, ume baten ama. ▪ Egoera irregularrean. ▪ Jatorkin elkarteko kidea. 	2020ko martxoaren 24a


Iturria: egileak egina

³ Izen-abizenak asmatuak dira.

4. ANALISIA

Metodologiako atalean aipaturiko lau elkarrizketak egin ondoren, jarraian, jasotako informazioa analizatuko da, lanaren hipotesi zein helburuak zein diren kontuan edukiz. Horretarako, hipotesian zehaztu den bezala, legeak etorkinengan sor dezakeen ustezko bazterkeria analizatu nahian, esparru teorikoan azalduko FOESSA txostenean ageri diren bazterketaren dimentsioak hartuko dira oinarritzat: ekonomia (lana eta kontsumoa), politikoa eta hiritartasuna, eta hirugarrenik, soziala edo harremanekoa. Beraz, immigranteen beraien eta haiekin lan egiten duten aditu eta profesionalen hitzetatik abiatuta, alderdi ezberdin horien bidez errealitatea azaltzeko saiakera egingo da.

4. Irudia: Bazterketa eta FOESSA txostenaren dimentsioak.



Iturria: egileak egin FOESSAko datuak erabiliz.

4.1. Ekonomia (lana eta kontsumoa)

Ekonomiari dagokionez, Espainiara datozen etorkinen gehiengoan helburu nagusia beren herrialdeetan ez duten egonkortasun ekonomiko bat lortzea izanik, aspektu garrantzitsua da beren migrazio-prozesuetan. Elkarrizketatuko etorkinek eta adituek adierazi duten bezala, iristen diren momentutik haien nahi nagusia lan egitea izan ohi da, horren bidez diru-sarrera egonkor bat edukitze aldera. Jazminek dioen bezala *bizitza hobe baten bila, lan egitera eta gure etorkizuna bilatzera* etorri zen beste etorkin asko bezala, jatorriko herrialdean egoera sozioekonomikoa okerrera zihoan heinean. Izan ere, beren herrialdean lana edukita ere, askotan lan hori prekarioa izaten da oso (gehienetan *garatutako* herrialdeen enpresa multinazionalen deslokalizazioaren ondorio) eta oinarriko beharrianak asetzeko ez dute nahikoa izaten: *ezin da bizi*. Hala eta guztiz ere, Jazminek *shock* eta *inoiz jasan dugun kolpe gogorrena* bezala definitzen duen modura, iristerakoan Atzeritarrei buruzko Legeak hiru urtez lan egiteko baimen hori kentzen dietela ohartzen dira, eta honek erabat baldintzatzen du laneratze- eta ekonomia-arloa, *urte horietan nola biziko gara?*

Jatorriko herrialdeetik lan kontratu batekin etortzearen baldintza erabat irrealak dela salatzen dute elkarrizketatuek, eta esparru teorikoan aztertu den bezala, era irregularrean datozen etorkinen kopurua ikusirik, egungo migrazio-mugimenduen errealitateetik oso urrun dagoen baldintza dela argi geratu da. Horrela, Paulak adierazten duen legez, *ez ditu kontuan hartzen migrazio-mugimenduak eragiten dituzten prozesu sozial eta globalak, eta eredu ideal moduko batean kokatzen da, etorkinek haien jatorriko herrialdean kontratu bat lortuko balute bezala*.

Lan baimenik ez edukitzeak eragin ezberdinak ditu etorkinengan. Horiei heldu aurretik, euren egoera testuinguruan jartzea interesgarria da ekonomiaren analisia egiteko. Aipatzekoa da, gehiengoak familiak jatorriko herrialdean uzten dituela, eta jomugara iristen direnean, ez dutela laguntza-sare sozial sendorik edukitzen. Beraz, bakarrik aurkitu ohi dira, eta euren beharrei ere bakarrik egin behar diete aurre. Horren aurrean, alde batetik, lanik ez edukitzeak, diru-sarrera egonkorrik ez edukitzea esan nahi du, baina dirua bizitza duin baterako erdigune den gizarte kapitalista batean, bizirauteko ezinbestekoa da

diru-sarrera minimo bat edukitzea. Honen aurrean, egindako elkarrizketetatik, bi irtenbide posible atera dira: a) ekonomia ezkutuan sartzea eta b) laguntza publikoa eskatzea.


- a) Ekonomia ezkutuari dagokionez, diru beltza ikusten dute modu bakar bezala haien oinarritzko beharritanean aurre egiteko (adibidez, jatea). Bide honek zapalkuntza egoera batera eramaten ditu, esplotaziora eta inongo babesik gabekora, Paulak *semiesklabutza* bezala izendatzen dituelarik lan jardun hauek, izan ere, lan baimendurik egin ezin dutenez, ekonomia ezkutuko edozein lan onartu besterik ez dute biziraun ahal izateko, eta horiek ez dutelako babes sozialik, lan-kontraturik, kotizaziorik, osasunerako sarbiderik, ordutegirik... Aditu berak azaldu duen moduan, generoaren eta jatorriko herrialdearen arabera, jardun bat edo beste nagusitu ohi da: emakumeei dagokienez, etxeko lanetan ibili ohi dira; Hego Amerikatik datozenen artean ostalaritza nagusitu ohi da, eta bestetik, senegaldarrek batik bat manteroen bidea hartu ohi dute. Nekazaritzan lan egitea ere ohikoa izaten da, eta beste jardun batzuk ere badauden arren, jardunak jardun, esplotazioa eta prekaritatea nagusitzen dela adierazten dute. Jean azken bi hauetan ibili da, -mantero eta nekazari-, eta irabazten duten diruarekin soilik egunean bertan zerbait jateko edukitzen dutela adierazi du, eta egun batzuetan ezta hori ere, *ahal den moduan bizirauten dugu*. Gainera, askotan polizia atzetik edukitzen dute *agertzen direnean korrika irteten gara, beldurra dugu*.

Bestetik, norbaiten agindupean dabilzan langileen kasuan, nagusiek askotan egoera horretaz probetxua ateratzen dute, argi baitute pertsona horiek ilegalki daudela herrialdean, eta beste biderik ez dutela. Horregatik, lanordu luzeak eta soldata oso baxuak nagusitzen dira orokorrean. Izan ere, esplotazio horren aurrean, ez dute salatze aukerarik, salatzeraz joanez gero, langile etorkinak beraiek aterako balira galtzen, era irregularrean daudelako eta atxilotu egingo lituzketelako. Gainera, esan bezala, soldata baxua izan ohi da, eta horrek askotan etxebizitza bat ordaintzeko aukera eza dakar, eta egunerokoan irabazten dutenarekin bizi dira, egunez egun. *Klandestinitatera behartzen gaitu Legeak* dio Jeanek, eta ildo bera jarraitzen du Paulak *Legeak ekonomia ezkutua sustatzen du zalantzarik gabe*.

b) Dirulaguntzak eskatzeari dagokionez, era irregularrean dauden pertsonak oinarrizko zerbitzu batzuetarako eskubidea dutenez, horiek eskatzeko aukera ere badute. Nolakotasuna ezberdina izan daiteke; elkarrizketatuei dagokienez, Jazminek, adibidez, udaletxearen aldetik dirulaguntza bat jasotzen du, eta beste erakunde baten bidez ez du alokairua ordaindu beharrik. Hala ere, bere hitzek argi diote: *Nik ez dut diru laguntzarik nahi, nik lan egin nahi dut... lan egiteko eskubidea kentzen digutenean bizitzeko eskubidea kentzen digute*. Paradoxikoa da estatuak berak lan egiteko, eta beraz, diru-sarrerak edukitzeko baimena eta eskubidea ukatzen dien bitartean, dirulaguntzak eskaintzea. Bestetik, Maria hezitzaile den bezalako baliabideak ere erabili ohi dituzte; hau da, babes *osoago* bat bezalako baliabideak, oinarrizko beharrianak asetzeko diru-laguntza bat emateaz gain, aldi baterako etxebizitza bat ere ematen dutenak. Hala ere, baliabide hauek oso murriztak direla dio, eta beraz, inolaz ere ez dagoela gehienarentzat horrelakorik, bertara iristen direnak *pribilegiatu* bezala izendatzen dituelarik.

Hiru urte era irregularrean pasa ondoren, lan-baimen zein bizileku-baimen gabe, eta aurretik aipaturiko egoera ekonomikoan, ahal bezala bizirauten, errotze bidezko erregularizazio aukera dator. Bizileku-baimena izateko urtebeteko lanaldi osoko kontratua eskatzen zaie atzerritarrei (berez Legean diru-kopurua ageri den arren, orokorrean diru hori lortzeko aipaturiko kontratu mota behar da). Urtebeteko lan-kontratu hori, beraz, ezinbestekoa dute, eta aldi berean, ia ezinezkoa, etorkinak izatearen faktorea eta honek dakarren irudi ezkorra eta diskriminazioa gehituta. Izan ere, Jazminek dioen bezala, *hemen jendeak ez du urtebeteko kontratua eskaintzen, hilabeteetarako bai, ordea, baina horrek ez digu balio. Gainera, bertako bati zaila egiten bazaio horrelako kontratu bat edukitzea, imajinatu etorkinoi*. Beraz, lan kontratu hori bete ezin badute, era irregularreko egonaldia luzatu egiten zaie; horrela, Jeanen kasuan, adibidez, sei urtez egon zen egoera horretan. Hemen ere, beraz, ekonomia ezkutura jotzea ala dirulaguntzak eskatzea ikusten dute irtenbide. Mariak argi uzten du baldintza oso bortitza dela, *bertakooi horrelako lan-kontratu bat lortzea kostatzen bazaigu, imajinatu atzerritarrei*; izan ere, aurretik aipaturiko irudi ezkorraz gain, ez dute harreman-sarerik edukitzen, eta horrek ere asko zailtzen du lan-bilatzea.

5. Irudia: Egoera irregularra eta diru-sarrerak




Iturria: egileak egina

Zorte gehiago dutenek eta urtebeteko kontratu hori lortzen dutenek ere, hala ere, bizileku-baimena eduki bai, baina ez dute inolaz ere haien bizimodua guztiz hobetzea lortzen. Izan ere, ekonomia ezkutuan bezala, prekarietatea eta esplotazioa aurkitzen dugu lan horietan. Hasteko, besteek, hau da, bertakoek nahi ez dituzten lanak hartzea besterik ez zaie geratzen askotan, eta lan horiek, nola ez, lan gogorak izan ohi dira. Emakumeengan etxeko barne-lana nagusitzen da, eta gizonengan, adibidez, arrantza aukera bezala agertu ohi da. Legeak urtebeteko lana leku berean igarotzea behartzen ditu, salbuespenezko arrazoiak arrazoi. Egoera honetan, enpresariak batzuetan probetxua ateratzeko aukera ikusten dute, eta badakitenez haien langile diren etorkinek oso beharrezkoa dutela urtebeteko lanaldi hori eta ez dutela inolaz ere utziko, era prekarioan edukitzen dituzte, haien negozioaren onerako, adibidez, ordaindu gabeko lanaldi luzeak ezarriz.

Elkarrizketatuek adierazi duten moduan, *sorgin-gurpila* bezala da, hau da, irteerarik gabeko zirkulua. Izan ere, lan-baimena eta bizileku-baimena edukitzeko lan-kontratu bat eskaintzen dizute, baina aldi berean, Espainian zauden momentutik, lehen hiru urteetan

lan-kontratu bat eskaintzen badizute ere, ezin diozu baiezkoa esan ezin duzulako lanik egin.

6. Irudia: Egoera irregularreko irteera gabeko zirkulua.



Iturria: egileak egina.

4.2. Arlo politikoa eta hiritartasuna (politika, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna)

Azpigaratutako herrialdeetatik datozen pertsonak, lan egitera etortzeaz gain, eskubide minimo batzuen bila ere etortzen dira. Horrela, askotan jatorriko herrialdean pribatizatuta dauden edo pribatizatzeko prozesuan dauden sistemak direla medio; edo zuzenean zerbitzu prekarioa ematen duten sistemak daudela eta, hezkuntza, osasuna eta etxebizitzan eskubideen bila etortzen direla dio Jazminek, hauek baitira ongizate eta bizi-baldintza duin baten oinarri nagusiak, besteak beste.

Hezkuntzari dagokionez, elkarrizketatuek diote era irregularrean dauden etorkinei oro har gutxieneko eskubide batzuk bermatzen zaizkiela. Horiek horrela, lan- eta bizileku-baimenik gabe egon behar diren hiru urteak (edo gehiago) aprobetxatzeko, gehiengoak ikasketei heltzea da ohikoena, ondoren denboraldi hori amaitzean lan bat bilatzeko formakuntza edukitze aldera. Mariak adierazten duen legez, pasaportearen duten etorkinek hezkuntza jasotzeko interesa dago instituzioen aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat, gurean geratu behar direnez, beraiek formatzea eta hezkuntza bat ematea onuragarria baita bai beraientzat zein bertakoentzat. Beraz, adibidez, Lanbideek ikastaro ezberdinak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Hala ere, paperik gabeko etorkinek egin ditzaketen ikastaroak ez dira paperak dituztenek edo beste edozein pertsonak egin ditzaketenak bezain baliagarriak (ordu-kopuruei eta praktikei begira, adibidez), betiere besteek lehentasuna edukiko baitute. Beraz, esan liteke hezkuntzarako eskubidea baduten arren, sarbidea murriztua geratzen zaiela.

Unibertsitatera heltzeko eskubidea ere badute, baina askok ez dute bide hau aukeratzen, arrazoi nagusi batengatik: euren helburu nagusia hiru urteak igaro eta ahalik eta azkarren lan bat bilatzea izan ohi da (bizileku-baimena lortzeko); beraz, denbora tarte horretara mugatzen diren ikasketak aukeratu ohi dituzte; heziketa-zikloak batik bat. Horrela, unibertsitaterako bidea askoz ere luzeagoa izanik, eta denbora horretan euren buruak mantentzeko baliabiderik izango ez dutenez, orokorrean, ez dute bide hori hartzen, luzera begira formakuntza hobe batekin aterako balira ere.

Esan bezala, beraz, etorkin askok hiru urte horietan zehar hezkuntzaren bidea hartzen dute. Halaber, Jeanek adierazten duen modura, ez da erraza izaten kasu askotan. Izan ere, ikasten ari diren bitartean, jateko eta oinarrizko beharrianak asetzeko dirua ere lortu behar dute, eta askotan batak bestea oztopatzen du, beraz, lehentasuna bizirauteari ematen diote, eta ikasketak alde batera uzten dituzte: *Zeharka, baina ez digute ikasten uzten, dirurik gabe beste lehentasun batzuk ditugulako*. Ikasketak uzteak, beraz, etorkizunean lana, edo behintzat, lan duina bilatzeko aukera murriztea dakar askotan, etorkinen kalterako.

Etxebizitzaren ildotik ere zailtasunak aurkitu ohi dituzte. Hiru urte horietan zehar izan ohi dituzten diru-sarrerak eta etxebizitza edo gela bat alokatu edo izatearen prezioak alderatuz gero, alde handia egon ohi da. Horregatik, immigrante askok lan- eta bizileku-baimenik ez duten bitartean kalean bizirautea besterik ez dute izaten. Gainera, kalean agerian baino, askotan okupatutako etxebizitzetan eta ezkutuko lekuetan egin ohi dute lo, poliziak aurkituko dituzten beldurrez. Badaude baliabideak etxerik gabekoei etxebizitza bat emateko; aterpeak batik bat, gaua igarotzeko leku bat ahalbidetzen dietenak baina eguna kanpoan igaro behar dutenak; eta kopuru gutxiagoan, Mariak lan egiten duen bezalako baliabide integralak, zeinak etxebizitza bat eskaintzen dizun.

Etxebizitza ordaintzeko baliabideak aurkitzen dituztenen kasuan ere zailtasunak ageri dira. Horrela, Jazminek dioen bezala, *etxebizitzaren bila hasten ginen, eta somatu nuen lehen gauza izan zen ea marokoarrak ginen galdetzen zigutela, eta askotan horregatik bakarrik alde batera uzten gintuzten*; hau da, kanpotar izate hutsagatik eta gizartean dauden estereotipo eta irudi ezkorragatik, etxebizitzen jabe diren askok ez die atzerritarrei alokatu nahi izaten, eta honek etorkinen etxebizitza-bilatze prozesua zailtzen du. Jeanek ere esperientzia hori oso ohikoa dela baieztatu du *ordainduko diegula esaten diegu, dena garbi edukiko dugula* baina hala ere arrazakeria gailentzen da *beltzak garelako edo atzerritarrak garelako bakarrik ez digute alokatu nahi*.

Etxebizitzaren gaiari loturik, errolda lortu ahal izateko oso garrantzitsua da beraientzat bizileku bat izatea. Izan ere, irregularrean egondako hiru urteei buruz ari garenean (gero lan-baimena lortzeko), denboraldi horretan erroldatuta egon behar dira, eta etxebizitzarik ez badute eta aterpeetara ez badoaz, kale gorrian bizi badira bete-betean, egoera horretan egondako denboraldia ez da kontuan hartzen.

Osasunaren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoan orokorrean nahiko ondo baloratua den dimentsioa dugu hau. Aipatu beharra dago autonomia erkidegoen artean ezberdintasunak daudela paperik gabekoei emandako osasun-arretari dagokionean. Horiek horrela, Euskadin, Frantziarekin duen gertutasuna dela-eta, eta etorkinen ongizateaz gain bertakoen ongizateari begira, Osakidetza txartela ez baino zenbaki-kode bat ematen diete, eta horrekin osasun-zerbitzua izateko eskubidea dute. Euskaditik kanpo, Paulak

berak adierazten duen modura, medikura joaten diren immigranteei, oso larria ez bada, ez diete zerbitzurik eskaintzen eta bere herrialdean arreta eskaini ezin diotela erakutsi behar du, besteak beste, nahiz eta osasuna *unibertsala* den, *ez du zentzurik*.

Politikari lotuta, berriz, esan behar da paperik gabeko etorkinei ez zaiela hauteskundeetan bozkatzeko eskubiderik onartzen. Ezin dute aukeratu bizi diren herrialdean nork agintzen duen, nahiz eta bertan lan egiten duten, bertan xahutzen duten beraien dirua eta lan-indarra. Horregatik, hein handian, pertsona migratzaileek beraiek aberasten duten herrialdeak berak ez die uzten gobernuaren agintaria hautatzen. Honek Paulak dioen bezala *infantilizazio* egoera batean uzten ditu, aukera-gaitasunik ez balute bezala, eta honek egoera psikologikoan erabat eragiten du. Izan ere, bertan lan-indar guztia uzten ari badira ere, ondoren ez badute horrelako eskubiderik, robot hutsak sentitzen dira, ez-gizatiarrak.

Amaitzeko, orokorrean eskubideei loturiko gaiari helduz, edozein arlotan ez badute tratua egokia jasotzen edo edozein eraso jasotzen badute, (adibidez berez ikastaro batean izena emateko eskubidea badu baina idazkariak ez badio uzten, ospitaletik ez badiote behar duen tratua ematen, soilik arrazakeriatik ez badiete etxebizitzarik alokatu nahi...) ez dute komisaldegian salatzeko aukerarik izaten. Izan ere, era irregularrean badaude, poliziarengana jotzea haien buruak komisaldegira eramatea bezala izango litzateke, salaketa edo kexa bat jartzera bazoaz ere horri baino garrantzi gehiago emango baitiote paperak ez edukitzeari. Beraz, eskubide batzuk edukita ere, ondoren horiek betetzen ez badira, ezin izaten dute horren aurrean ezer egin, atxilotuko dituzten beldurra dela eta. Paulak dioen bezala, *injustizia egoeretan ahotsa altxatzeko aukera gabe geratzen zara*.

5.Taula: Politikoa eta hiritartasuna.

Politika eta hiritartasuna	Egoera
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasteko eskubidea bai baina murriztua. ▪ Hiru urte baina gutxiagoko ikasketen hautaketa. ▪ Diru-iturririk eduki ezean, beste lehentasun batzuk gailentzen dira ikasketez gain.
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Diru-iturririk ez ordaintzeko. ▪ Kalean edo laguntzen bidez lortutako aldi baterako etxebizitzetan bititzaa ohikoena. ▪ Ordaintzeko aukera egonez gero, arrazakeria dela-eta etxebizitza aurkitzeko zailtasunak.
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadin unibertsala Frantziarekiko gertutasunagatik eta gaixotasun kutsagarriak kontrolatze aldera. ▪ Espainiako gainontzeko Autonomia Erkidegoetan soilik oso larria denean jasotzen dute arreta paperik gabekoek.
Politika	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bozkatzeko eskubiderik ez.

Iturria: egileak egina.

4.3. Arlo soziala edo harremanezkoa (gatazka soziala edo isolamendu soziala)

Arlo sozialari dagokionean, ikuspegi ezberdinak aurki daitezke. Garrantzitsua da Legeak berak etorkinekiko sortzen duen ikuspegia azpimarratzea; soilik baldintza jakin batzuk betetzen ez dituztenak ilegal bihurtzearekin batera, irudi ezkorra zabaltzen ari delako gizartean. Horrela, Paulak dioen bezala, Legeak gizartea hierarkizatzea du helburu, klase ezberdintasuna sortzea: alde batetik, bertakoek egongo lirateke, ondoren paperak dituzten etorkinak, eta azkenik, paperik gabekoak. Honek, beraz, isolamendu soziala sortzen du azpian kokatzen direnekiko.

Mariak eta Jazminek dioten bezala, gainera, gizarteak Legearekiko duen ezjakintasunak ere horiekiko irudi ezkorra izatea dakar. Izan ere, gizartean zabalduak dauden zurrumurru nagusiei begiratu gero, *lana lapurtzera datoz, egin dezatela lan* edo *dirulaguntzetatik bizitzera datoz* bezalako ideiak oso zabalduak daudela ikusiko dugu. Baina, hiru ideia horien atzean Legea bera dago. Hasteko, krisiaz geroztik etorkinek ezin dute edozein lan aukeratu, betiere lehentasuna bertakoek izango baitute, eta beraz, lan-jarduera jakin batzuk osatzen duten zerrenda bat egon ohi da, immigranteek izan ditzaketen ogibideen lan-zerrenda bat, eta lan horiek bertakoek nahi ez dituztenak izan ohi dira; hala nola, arrantza. Lan egin dezatela ideiarenean atzean ere, Legea dago; izan ere, hiru urtez lan-baimenik gabe uzten ditu etorkinak, eta beraz, immigranteek beraiek lan egin nahi izanda ere eta kontratu bat sinatzeko aukera edukita ere, Legeak ez die uzten. Azkenik, dirulaguntzetatik bizitzera etorri baino, lan egitera datoz gehienak, baina esan bezala, lan egin ezin badute, zerbaitetik bizi beharko dira, eta bide bat dirulaguntzena da. Honen atzean zera dago: etorkinekiko iritzi eta ikuspegi ezkorra nabaria da gizartean, zeinak hein batean atzerritarren isolamendua dakarren, baina ideia ezkor horien atzean Legea bera dago, etorkinei egozten zaizkien alderdi jakin batzuk (adibidez, lana egin dezatela) Legeak berak eragiten baitizkie (lan-baimena kentzea).

Jazminen elkarrizketari begira, aipatzekoa da integrazioari buruz hitz egitean, eskolari egiten dion aipua. Izan ere, komunitatean parte hartzeari buruz hitz egitean, batik bat bere alabaren eskola aipatzen du: bertan parte-hartze aktiboa duela eta gurasoekin elkarte batean dagoela, jarduera ezberdinak egiten dituztela komunitatean ikastolaren bidez, etab.

Beraz, eskola faktore garrantzitsua izan daiteke etorkinak integratzerako garaian, eta Mariak adierazten duen moduan, hezkuntza arloa izan liteke diskriminazio gutxien duen gunea.

Etorkinaren itxurak ere integrazioan bere zeresana baduela esan daiteke; horrela, kanpotik etorriak izanda ere, atzerritar itxura ez dutenek erraztasun gehiago izan ohi dituzte integratzerako garaian. Jazminen kasuan dio bere familia ilehoria eta azal txuria izanik, ez dituztela askotan etorkintzat hartzen, eta horrek ezinbestean haienganako tratuan eragiten duela; argiago balego kanpotarrak zirela agian beste tratu ezkorrago bat jasoko zutela baitio. Jazminen kasuan, beste arrazoi batzuk tarteko, soinean ereman ohi zuen *hiyaba* kentzea erabaki zuen; izan ere, jantzita eramaten bazuen argi ikusten zen atzerritarra zela, baina hori kenduta, *hemengoagoa* dirudi. Honen atzean argi dago etorkinekiko irudi ezkorra dagoela, eta horregatik, immigrante direla *disimulatzen* eta *ezkututzen* saiatzen dira tratu berdintsuagoa jaso dezaten eta Jazminek dioen bezala, *begirada ezkor batzuk ekiditeko*.

Beste gai bat poliziarena dugu. Horrela, elkarrizketetan ikusi den bezala, etorkin askok beldurra eduki ohi dute (batez ere era irregularrean daudenean) poliziak gelditu eta atxilotu egingo dituztelakoan. Izan ere, paperik ez badute, komisaldegira eramaten dituzte askotan, eta ondoren kanporatze-orden bat ezarri. Paulak *faktore etniko-arrazialetan oinarritutako identifikazio polizial arrazista* deitzen dio honi, eta oso ohikoa da irudian soilik oinarrituz (fisikoki immigrante direla ikusten denean) atxilotetak edo geldialdiak egitea. Geldialdi hauek, zeharka, irudi ezkorra sortzen dute gizartean, kalean etengabe poliziak immigranteak gelditzen dituztela ikusten duten hiritar askok lapurreta edo delituren bat egin dutela pentsatzen baitute, ondoren *lapur batzuk dira* bezalako estereotipoak zabalduz. Horretaz gain, etorkinak kalera gutxiago irtetea eragiten du honek, edota irtenda ere, jende gutxi egon ohi den eremuetara irtetea, eta gainontzekoekin harremanak sortzeko prozesuan ezinbestean eragiten du, *beldurra ematen dugu kalera irteteak* dio Jeanek, *kalean lasai ibiltzea ez litzateke pribilegio bat izan beharko*.

Beldur horrek kalera irtetea oztopatzen duen bezala, bizilagunen edo herritarren asoziazio, elkarte edo jardunetara hurbiltzea ere oztopatzen du. Izan ere, askotan parte

hartu dezaketen arren, beldurra izan ohi dute zuzenean poliziak aurkitzeko edo argazki eta komunikabideen bidez haien berri izateko. Beraz, Mariak dioen bezala, oso zaila da egoera irregularrean dauden denboraldian elkarteetan eta bizitza komunitarioan era aktiboan parte-hartzea

Azkenik, harreman sozialak sortzerako garaian hain garrantzitsua den hizkuntza ere oinarritzko faktorea da. Horrela, espainiera hitz egiten duten herrialdeetatik datozenen kasuan, edo jatorriko herrialdean espainiera ikasi duten horien kasuan, errazagoa bihurtzen da ondoren autoktonoekin harremanak sortzea. Halaber, jomugako herrialdera hizkuntza menperatu gabe iristen diren horien kasuan, zailtasunak aurkitu ohi dituzte, eta horregatik, ia denek -edo denek- iritsi bezain laster hizkuntza ikasteari ekiten diote. Horrela, batik bat lehen hilabeteetan, espainierarekin defendatzen ez direnean, oso zaila egiten zaie bertakoekin harremanak piztea.

ONDORIOAK

Lan honen amaierari heltzeko, hasieran planteatzen zen hipotesiari helduko diogu: Atzerritarrei buruzko legeak, oinarrian duen gizarteratze helburua urratuz, lan-kontraturik gabe iristen diren etorkinen gizarte bazterketa indartzen duela planteatzen da lan honen hipotesi gisa. Izan ere, Legea egun ematen diren migrazio-mugimenduen nolakotasunarekin bat ez datorreneko susmotik abiatu da lan hau, horren ondorioa etorkin ugari egoera zaugarrian aurkitzea izan zitezkeelakoan, azken muturrera iritsita kalean eta inolako babesik gabe aurkitu zitezkeelako hainbat etorkin.

Hipotesi hau badirudi norabide egokian planteatu dela, izan ere, elkarrizketatu guztiek, Legeak, integrazioa baino gehiago bazterketa sustatzen duela esan baitute aho batez. Izan ere, hasteko, soilik atzerritarrei zuzendutako lege bat sortzen den momentutik, non haien betebeharrak eta eskubideak zehazten diren, jada bertakoez gain beste kategoria baten sorrera ematen da, bertakoak-etorkinak dikotomia sortuz. Gainera, ikusirik soilik legalak izateko baldintza jakin batzuk eskatzen zaizkiela, eta betetzeko oso zailak direnak gainera - aurrerago helduko diogu horri-, eta aldi berean, etorkinen immigranteen eskubideak murrizturik ikusten direla Legean, beste kategoria sortzeaz gain, azpikategoria batean kokatzen dituela esan daiteke, honek dakarren guztiarekin, besteak beste, azpitalde horren bazterkeria, *etorkinak* direlako, *besteak* direlako.

Legeak, beraz, herrialdean legalki egon ahal izateko, hau da, erregularizatzeko, baldintza bat ezartzen die. Lan honetan baldintza horiek aztertzea izan da helburuetako bat, eta hala egin da. Horiek horrela, lehen momentutik egoera juridikoa erregularizatu ahal izateko baldintza honakoa da: jatorriko herrialdeetik jada kontratu batekin etortzea. Lan honen helburu izanik baita ere baldintza horiek Espainiara datozen pertsona migratzaileen errealitatearekin alderatzea, eta nolabait, horren irisgarritasuna neurtzea, errealitatetik oso urrun dagoela ondorioztatu da: ez ditu migrazioa eragiten dituzten eragile sozialak eta ekonomikoak kontuan hartzen. Horrela, ikusi soilik ez dago urtero jatorriko kontraturik gabe etortzen direnen kopurua, ondoren ezinbestean hiru urte era irregularrean igaro behar dituztenak. Beraz, orokorrean Legea migrazio-mugimenduen errealitatetik nahiko urrun kokatzen dela esan liteke.

Eskuragarritasun zaila duten baldintza horien ondorioz, beraz, urtero Espainiara heltzen diren migratzaile asko eta asko egoera juridiko irregularrean uzten ditu Legeak, hiru urtez, gutxienik ere. Hiru urte horietan zehar, euren bizimoduan eta bizi-duintasunean erabat eragiten du Legeak, eta FOESSA txostenak bazterkeria-dimentsiotzat erabiltzen diren arloetan ere bai: arlo ekonomikoa, politikoa eta hiritartasuna, eta azkenik, soziala edo harremanezkoa. Lan honen azken helburua izanik egoera irregularrean egoteak atzerritarren gizarteratze prozesuan eragiten dituen ondorioak ikertzea izanik, hiru dimentsio horietan Legeak nola eragiten dien ikertu da lanean, elkarrizketa sakonen bidez, honako ideia eta ondorioak atera dira.

Arlo ekonomikoari dagokionez, honek lan-arloarekin duen harreman estua azpimarratu beharra dago lehenik. Horiek horrela, historian zehar oso lotuak egon dira lana eta integrazioa terminoak, eta gaur egun dimentsio gehiago ere kontuan hartu behar badira ere, lanak integrazioari dagokionez pisu handia izaten jarraitzen du. Etorquinei dagokienez, jatorriko lan kontraturik gabe iristen diren etorkinak gutxienik ere hiru urtez era irregularren egon behar izateak, eta beraz, bizileku- zein lan-baimenik gabe, erabat eragiten du haien integrazioan, era ezkorrean. Horrela, lan baimendurik eduki ezinak immigranteen integrazioa oztopatzen duela esan liteke, eta era berean, haien bazterkeria sustatzen duela. Izan ere, diru-iturririk ez edukitzeak dakarren kontsumo ahalmen ezaz gain, asko ekonomia ezkutuaren bidea hartzera eramaten ditu, honek atzean dakarren prekarizazioarekin eta esplotazioarekin. Hiru urteak era irregularrean igarota ere, errotze bidezko erregularizatzeko aukera dutenean, urtebeteko lan-kontratua eskatzen zaie bizileku-baimena eduki ahal izateko, eta hau oso urrun geratzen da egungo lan-merkatuaren errealitatearekin. Izan ere, kontuan hartuz legea 2000. urtean sortu zela, ondoren aldaketa batzuk eduki baditu ere, urtebeteko kontratuaren baldintzak berdin jarraitu du, baina bi hamarkada hauetan lan-merkatuaren funtzionamendua erabat aldatu da. Beraz, baldintza hau errealitatetik oso urrun dagoela esan liteke, etorkinen eta haien ongizatearen eta integrazioaren kalterako.

Arlo politiko eta hiritartasunarekin jarraituz, osasunean eta hezkuntzan oro har eskubide minimo batzuk onartuak dituztela esan liteke. Horrela, osasun arloan Euskal Autonomia


Erkidegoan Osakidetzako txartela ez duten arren, osasunari loturiko beharrianak aseta dituzte, baina Espainian ez da horrela ematen, eta soilik oso egoera larrian badaude ematen diete arreta. Hezkuntzari helduz, ikasteko eskubidea dute, formakuntza ezberdinetan parte hartzekoa, baina oztopo batzuk ageri dira. Alde batetik, prestigio handiagoa duten formakuntza batzuetan lehentasuna dutela autoktonoak direnek edota era erregularrean daudenek, egoera irregularrean daudenak bigarren maila batean utziz; eta bestetik, ikasten dauden bitartean biziraun eta oinarrizko beharrianak nola ase pentsatzen ari badira, askotan zaila egiten zaie formakuntzan jarraitzea, eta hori uztea eta dirua lortzeko beste bide bati ekitea hartzen dute irtenbidetzat. Etxebizitzaren arloa ekonomia arloari estuki lotua dagoela esan liteke, izan ere, bizileku bat ordaindu ahal izateko gutxieneko diru-sarrera behar izaten da, eta lan-baimenik gabe dauden bitartean, zaila egiten zaie sabai baten azpian lo egin ahal izateko behar bezainbeste diru edukitzea, beraz, asko eta asko kalean lo egitera behartuak ikusten dira. Zorte gehiago dutenek, baliabideren baten bidez lo egiteko aterpea lortzen dute, edota diru-laguntzen bidez lortzen dute bizilekuren bat ordaintzea, baina orokorrean gutxiengoa dira azken hauek. Aldi berean, etxe bat euren kabuz bilatu nahi duten etorkin askok etxebizitzaren jabeen aldetik jarrera ezkorra jasotzen dute, immigrante izate hutsagatik askotan alkilatu nahi izaten ez dietelarik. Beraz, etxea edukitze hutsa asko zailtzen zaie etorkinei, honek ere integrazioan ondorio negatiboak izanik.

Azkenik, arlo soziala edo harremanezkoa dugu FOESSAko bazterkeriaren dimentsioetan. Horrela, Legeak komunitateko parte-hartzea eta harreman sozialak sortzea zailtzen duten faktoreak sortzen dituela ondorioztatu da. Besteak beste, soilik pertsonak ilegal izendatzeak sortzen duen ikuspegi ezkorra, atzerritar izateagatik etengabeko poliziaren geldialdiak (honen ondorioz, alde batetik, etorkinek beraiek kalera irteteko beldurra izaten dute, eta bestetik, kanpotik poliziak etorkinak etengabe gelditzen dituela ikusita, delitugileak direnaren irudia), edota lan egiteko lan-baimenik ez dutenez, eta beraz, lan baimendurik egin ezin dutenez, gizartean sortzen den irudi ezkorra, “etorkinek ez dute lanik egiten” edo “diru-laguntzetatik bizitzera datoz”, horretara Legeak behartzen dituela jakin gabe. Beraz, gizartean etorkinekiko irudi ezkorra zabaltzen bada, besteak beste aurretik aipatutako arrazoiengatik, immigrante eta bertakoen artean harremanak sortzea zaildu egiten da, isolamendua nagusituz.

Oro har, beraz, argi geratzen da proposatutako hipotesia norabide egokian planteatuta legokeela: legeak gizarteratzea ahalbidetu baino gehiago hori oztopatu eta bazterkeria eragiten duela erakutsi baitu esku artean dugun ikerketak. Izan ere, FOESSAk bazterketa dimentsio bezala erabiltzen dituen hiru arloak Atzerritarrei buruzko Legeak erabat kolpatzen dituela esan liteke elkarrizketa sakonen bidez ateratako informazio eta ikuspegi ondorior. Horrela, esan liteke etorkinak ez dituztela pertsona bezala ikusten, ekonomia edo diru gisa baizik. Izan ere, erregularizazioa lortzeko, eta beraz, legal izateko eskatzen zaizkien baldintzak lan-arloarekin estuki loturik daude, baina ez dira batere errealak. Izan ere, Legea 2000. urtean sortu zen, eta hogeitun urteetan gizarte eta lan mundua erabat aldatu da; beraz, Legea ere horien atzetik aldatu beharko litzateke, eta aldaketak egin dituen arren, oinarrian dauden hiru urteko erroldatzearen eta urtebeteko lanaldiaren baldintzak ez dira aldatu.

Atzerritarrei buruzko Legea bere horretan arrazista dela esan dute elkarrizketatuek, eta era berean, bazterkeria sustatzen duela. Izan ere, Legeak berak pertsonak ezberdindu eta horien artean kategoriak sortzen dituzte, hiru hain zuzen: autoktonoak, erregularizatuta dauden etorkinak eta era irregularrean dauden etorkinak. Horrela, gizartean piramide hierarkiko bat sortzen duela esan liteke. Goikaldean daudenak integratuak egongo lirateke, eskubide guztiekin, eta behekaldekoak, berriz, baztertuak, eskubide murriztuekin.

7. Irudia: Atzerritarrei buruzko Legea eta piramide hierarkikoa.



Iturria: egileak egina

Irudian ikus daitekeen bezala, beraz, egoera irregularrean egoteak bazterkeria ahalbidetzen du, bai ekonomia arloan, politika eta hiritartasunean eta harremanezkoan edo sozialean. Legeak hau eragiten duen heinean, Legea bera da arazoa hein batean etorkinen bazterkeriari begira, eta beraz, aldatu beharrekoa. Alternatibak edo proposamenak egitea ez da erraza, aspektu asko hartu behar baitira kontuan, baina oso bideragarria den aldaketa bat egin beharko litzateke Legea berriro egituratzerakoan: etorkinen beraien partaidetza. Horrela, immigrante adituen eskutik marko legal berri bat sortzea proposatuko nuke, etorkinak pertsona bezala hartzen dituen diru bezala baino, eta etorkinen bazterkeria sustatzea ordez, haien integrazioa bultzatzeko neurriak edukiko

lituzkeena. Ezinbestean aldatu beharreko aspektuetako bat, horrela, lan-baimenarena izango litzateke. Izan ere, oinarrian dagoen helburua atzerritarren dei-efektua ekiditea da besteak beste, baina honek funtzionatzen ez duela ikusita, zentzua galtzen du baldintza horrek, bai etorkinen ongizateari begira baina baita herrialdearen ekonomiari begira ere. Beraz, ez litzateke pertsona ilegalik existitu beharko, eta hasieratik eskaini beharko litzaieke bizileku- eta lan-baimena.

Lanari amaiera emateko, laburbilduz, Atzerritarrei buruzko Legeak arrazakeria instituzionala agerian uzten du. Harresia eta muga ikustezina da, atzerritarren ongizatea bilatu orde, haien bazterketa sustatzen duena, azpikategoria batean kokatuz. Ildo beretik, egun arrazakeriaren aurka egiteko tresna nagusia hezkuntza dela esaten den arren, -eta ez dut zalantzan jartzen horrek duen garrantzia-, gutxirako balio du familian edo hezkuntzan heziketa antiarrazista egitea, ondoren arrazakeria instituzional eta lege arrazistaz inguraturik bagaude. Gizarte arrazista batean, beraz, aldaketa ez da soilik arlo jakin batzuetan eman behar; guztietan baizik, instituzioetan barne, eta baita legeetan ere. Izan ere, legeei buruz ari garenean justiziari buruz ari bagara ere, legeak ez dira beti bidezkoak, eta horiek gizartearekin batera aldatzen joan behar dira.

Quizá la solidaridad global sea una utopía, pero si no luchamos por ella, entonces estamos realmente perdidos, y merecemos estar perdidos
(Žižek, 2011, 95.or.)

BIBLIOGRAFIA

- Aguelo, Pascual (2009). La reforma de la Ley de Extranjería, una visión crítica desde los Derechos Humanos. *Revista de derecho migratorio y extranjería*, 22, 109-145.
- Aja, Eliseo (2011). La integración social de los inmigrantes. In Diego Boza, Francisco Javier Donaire & David Moya (Koord.), *Comentarios a la Reforma de la Ley de Extranjería* (25.-43. or.). Valencia: Tirant lo Blanch.
- Arango, Joaquín & Sandell, Rickard (2004). *Inmigración: Prioridades para una nueva política española*. Helbidea:
http://www.realinstitutoelcano.org/wps/wcm/connect/03cd2200417235ff9f06bf5d0eace3c6/InformeElcano_1_Inmigracion.pdf?MOD=AJPERES&CACHEID=03cd2200417235ff9f06bf5d0eace3c6, urtarrilaren 14an berreskuratua.
- Barros, Francisco (2016). *Inmigración y mercado de trabajo en España: Los trabajadores marroquíes procedentes de la industria exportadora* (doktoradutza tesia). Universidad de Granada, Granada.
- Blanco, Cristina (2000). *Las migraciones contemporáneas*. Madrid: Alianza Editorial.
- CEAR. (2016). *Movimientos migratorios en España y Europa*. Helbidea:
<https://www.cear.es/wp-content/uploads/2017/02/Informe-rutas-migratorias.pdf>,
urtarrilaren 17an berreskuratua.
- Camacho, Javier (2014). Exclusión social. *Eunomía: Revista en Cultura de la Legalidad*, 7, 208-214.

Chicharro, María del Mar (2003). La perspectiva cualitativa en la investigación social: la entrevista en profundidad. *Enlaces*, 0. Helbidea: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3692523>, otsailaren 6an berreskuratua.

D'Angelo, Alessio (2018). *Flujos migratorios en el Mediterráneo. Cifras, políticas y múltiples crisis*. Londres: Middlesex University.

De Pablos, Juan Carlos (2005). Las sociedades, la sociedad. In Julio Iglesias & Antonio. Trinidad (Eds.), *Leer la sociedad. Una introducción a la Sociología General* (92.-129. or.). Madrid: Tecnos.

EAPN-ES; Fundación Secretariado Gitano; Centro de Estudios Económicos Tomillo; EAPN-Madrid & ACCEM; Agrupación de Desarrollo Los Molinos (2014). *Guía de estilo: Empleo e inclusión social*. Helbidea: <https://tomillo.org/informes/empleo-e-inclusion-social>, otsailaren 4an berreskuratua.

Es Racismo (2018ko maiatzaren 1). El chollo de trabajar de interna en España. Helbidea: <http://esracismo.com/2018/05/16/la-ley-de-extranjeria-mata>, otsailaren 4an berreskuratua.

Espainiako Gobenua (2019). *Informe quincenal. Inmigración irregular 2019*. Barne-ministerioa. Helbidea: <http://www.interior.gob.es/prensa/balances-e-informes/2019>, otsailaren 4an berreskuratua.

Foessa (2019). *Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*. Helbidea: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/sites/16/2019/05/Informe-FOESSA-2019-completo.pdf>, urtarrilaren 14an berreskuratua.

González, Leonardo (2019). El nuevo paradigma de las migraciones internas en España: migrantes urbanos, más móviles y cualificados. El caso de Castilla y León. *Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales Universitat de Barcelona*, 609, 2-37.

- Gutierrez, Rodolfo (2013). La dimensión lingüística de las migraciones internacionales. *Lengua Y Migración*, 5(2), 11-28.
- Inglada, Elena; Sastre, José Manuel & De Miguel, Maria Cristina (2019). A inmigración irregular en España e Europa. *Revista galega de economía: Publicación Interdisciplinar da Facultade de Ciencias Económicas e Empresariais*, 1, 117-129.
- Luque, Pilar (2017ko maiatzaren 15). Una Ley de Extranjería alejada de la realidad. *El Diario*.
 Helbidea: https://www.eldiario.es/andalucia/NovusOrbis/Ley-Extranjeria-alejada-realidad_6_643995604.html, otsailaren 4an berreskuratua.
- Mazkieran, Mikel (2004). Recorrido por las leyes de extranjería en España. *Revista Mugak*, 29.
 Helbidea: <http://www.mugak.eu/revista-mugak/no-29/recorrido-por-las-leyes-de-extranjeria-en-espana>, otsailaren 8an berreskuratua.
- Moreno, Antonio (2005). Entrada de inmigrantes irregulares y Ley de Extranjería. In Alejandro del Valle & Miguel Ángel Acosta (Edit.), *Inmigración irregular y derecho* (53.-58. or.). Cádiz: Universidad de Cádiz.
- Muñoz, Jesús Miguel & Abalde, Eduardo (1992). Metodología cuantitativa vs cualitativa. In Jesús Miguel Muñoz & Eduardo Abalde (Koord.), *Metodología educativa I* (88.-89. or.). Coruña: Universidade da Coruña.
- Souradjou, Ali (2012). Algunas dimensiones y nuevas formas de pobreza y exclusión social. *Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, 53-54, 655-666.
- Torres, Paco (2011). *Jerarquía de derechos, trabajo formal y normativa de extranjería*. *Revista Mugak*, 6. Helbidea: <http://www.mugak.eu/revista-mugak/no-6/jerarquia-de-derechos-trabajo-formal-y-normativa-de-extranjeria>, otsailaren 8an berreskuratua.
- Žižek, Slavoj (2016). *La nueva lucha de clases. Los refugiados y el terror*. Liubliana: Editorial Anagrama.

LEGEDIA

7/1985 Legea, uztailaren 1ekoa, Espainiako Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei buruzkoa.
EAO 158 zk., 1985eko uztailaren 3, 20824.- 20829. or.

4/2000 Legea, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa. BOE 10 zk., 2000ko urtarrilaren 12, 1130.- 1150. or.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: Mariaren elkarrizketarako gidoia

Euskaraz:

- Zein da zure lana? Zein dira helburuak?
- Zein da erabiltzaileen profila?
- Zenbateko pisua du Atzerritarren Legeak zure lanean? Nola eragiten du?
- Zer deritzozu lege horri buruz?
- Nola eragiten die etorkinei/erabiltzaileei?
 - Uste duzu errealistak direla erregularizaziorako baldintzak? Zein da gehiengoak betetzen ez duen baldintza?
 - Nola eragiten du zure ekonomian? (Lana, diru-sarrerak, ezkutuko ekonomia)
 - Hezkuntzari dagokionez, paperik izan gabe ere, hezkuntza/prestakuntza/ikastaro mota guztietarako eskubidea dute?
 - Nolakoa izaten da zure etxebizitza-bilaketa? Baliabide falta, zailtasunak
 - Osasunari dagokionez, egoera irregularrean daudenek besteek dituzten eskubide berberak al dituzte?
 - Nola eragiten du integrazio-prozesuan? Herritarren parte hartzeari dagokionez (agian poliziak harrapatuko dituen beldur)
 - Uste duzu Legeak integrazioa bultzatzen duela, esaten duen bezala, edo alderantziz, bazterketa eragiten duela?
 - Lege honetatik zerbait aldatzerik bazenu, zer aldatuko zenuke?

Gazteleraz:

- ¿Cual es tu **trabajo**? ¿Cuales son los **objetivos**?
- ¿Cual es el **perfil de los usuarios**?
- ¿Cuánto peso tiene la **Ley de Extranjería** en tu trabajo? ¿Cómo afecta?
- ¿Qué **opinas** sobre esa ley?
 - ¿Cómo **afecta a los inmigrantes**/usuarios?
 - ¿Consideras que son **realistas los requisitos** para la **regularización**?
¿Qué requisito es el que no suele cumplir la mayoría?
 - ¿Cómo afecta en su **economía**? (trabajo, ingresos, economía sumergida...)
 - En cuanto a **educación**, aún no teniendo papeles tienen derecho a todo tipo de educación/formación/cursos?
 - ¿Cómo suele ser su búsqueda de **vivienda**? Falta de recursos, dificultades...
 - En cuanto a **sanidad**, ¿los que se encuentran en situación irregular tienen los mismos derechos que los demás?
 - ¿Cómo afecta en su **proceso de integración**? En cuanto participación en la ciudadanía (quizás miedo de que les pille la policía...)
 - Crees que la Ley **impulsa la integración** como dice o al contrario, provoca su **exclusión**?
 - Si pudieras cambiar algo de esta Ley, **qué cambiarías**?

II. ERANSKINA: Jeanen elkarrizketarako gidoia

Euskaraz:

- Aurkezpena: nondik zatoz, zergatik etorri zara?
- Iritsi zinenean dena espero zenuen bezalakoa zen?
- Ezagutzen duzu Atzerritarren Legea?
 - Nola eragiten dizu ekonomian? Lana...
 - Etxebizitza aurkitzeko, zer moduz? Zailtasunak
 - Hezkuntzan/prestakuntzan, ikastaro edo ikasketaren bat egiten ari zara edo egin duzu
 - Zer iritzi duzu zure osasun-eskubideei buruz?
- Modu irregularrean egon bazara/bazaude, zer baldintza zen/da betetzen ez zenuena?
- Pertsona irregularra dela uste duzu? Eta bizitza normala daramazu besteekin harremanetan jartzeari dagokionez, herritarrengan parte hartzeari dagokionez.
- Zer iritzi duzu erregularizatzeko baldintzei buruz? Errealista ikusten duzu?
- Oro har, etorkinei erregularizatzea zaila egiten zaiela esango zenuke?
- Amaitzeko, legeak etorkinen integrazioan laguntzen duela uste duzu? Edo gauzak zailtzen dizkizue eta baztertzen?
- Lege horretan zerbait aldatu ahal/nahiko bazenu, zer litzateke?
- - Beste edozein iruzkin...

Gaztelera:

- **Presentación:** de donde vienes, por qué viniste...
- ¿Cuando llegaste, todo era como **esperabas**?
- ¿Conoces la **Ley de Extranjería**?
 - ¿Cómo te afecta en la **economía**? Trabajo...
 - Para encontrar **vivienda**, ¿cómo fue? Dificultades...
 - En la **educación/formación**, estás haciendo o has hecho algún curso, estudios...
 - ¿Qué opinas sobre tus derechos en la **salud**?
- Si has estado/estás de manera **irregular**, qué **condición** era/es la que no cumplías?
- Una persona irregular consideras que es una **persona con derechos**? Y llevas una vida normal en cuanto a relacionarte con los demás, **participación en la ciudadanía**...
- ¿Qué opinas sobre las condiciones para regularizarse? Lo ves **realista**?
- ¿En general, dirías que a los inmigrantes se les hace **difícil regularizarse**?
- Concluyendo, consideras que la Ley **ayuda en la integración** de los inmigrantes? U os **dificulta** las cosas y os **excluye**?
- Si pudieras/quisieras **cambiar algo** en esa Ley, qué sería?
- Cualquier otro comentario...

III. ERANSKINA: Paularen elkarrizketarako gidoia

Euskaraz:

- Aurkezpena: nor zara, lanbidea...
- Arrazismoaren aurkakotzat, feministatzat eta animalistatzat jotzen duzu zeure burua, eta mugimendu politiko eta sozial desberdinetan parte hartu duzu. Zer da zuretzat aktibista izatea?
- Zure arrazakeriaren aurkako aktibismoan, eta agian zure bizitzaren historian, Atzerritarren Legeak pisu handia duela uste dut. Zer iritzi duzu lege honi buruz?
 - Zer iritzi duzu erregularizatzeko baldintzei buruz? Gaur egungo immigrazioaren errealitatearen antzekoak dira edo oso urrun daude?
 - Nola eragiten du lege honek migratzaileen esparru ekonomikoan? Eta zure lan-bizitzan? (Lan egiteko baimenik gabe, ezkutuko ekonomia,...)
 - Eta politika- eta herritartasun-eremuan? (Boto-eskubidea, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza).
 - Eta azkenik, arlo sozialean? Gatazka sozialetan edo isolamendu sozialean, herritarren partaidetza eta integrazioan, sare sozialetan...
- Pertsona bat modu irregularrean dagoenean, Atzerritarren Legeak ezarritako baldintzak betetzen ez dituelako, uste duzu eskubideak dituen pertsona dela?
- Legearen arabera, etorkinen integrazioa sustatzen da. Zure ustez, hori horrela da? Integrazioa sustatzen du edo diskriminazioa/marjinazioa sostengatzen du?
- Zerbait aldatuko zenuke Atzerritarren Legeaz?
- Beste edozein iruzkin...

Gaztelera:

- **Presentación:** quién eres, profesión...
- Te defines como antirracista, feminista y animalista y has participado en diferentes movimientos políticos y sociales. **¿Qué es para tí ser activista?**
- Supongo que en tu activismo antirracista, y quizás en tu historia de vida, la **Ley de Extranjería** tiene mucho peso. Qué opinión tienes sobre esta Ley?
 - ¿Qué opinas sobre las **condiciones para regularizarse**? ¿Se asemejan a la **realidad** de la inmigración actual o está muy alejado?
 - ¿Cómo afecta esta Ley en el ámbito **económico** de los/las migrantes? ¿Y en su vida laboral? (sin permiso para trabajar, economía sumergida, ...)
 - ¿Y en el **ámbito político y de ciudadanía**? (el derecho a voto, la educación, la sanidad y la vivienda).
 - Y por último, en lo **social**? En conflictos sociales u aislamiento social, participación e integración ciudadana, redes sociales...
- Cuando una persona se encuentra de manera **irregular**, porque no cumple los requisitos establecidos por la Ley de Extranjería, crees que es **una persona con derechos**?
- Según la Ley, se promueve la integración de los inmigrantes. En tu opinión, esto es realmente así? **Promueve la integración o sustenta la discriminación/marginación?**
- **¿Cambiarías algo** de la Ley de Extranjería?
- Cualquier otro comentario...

IV. ERANSKINA: Jazminen elkarrizketarako gidoia

Euskeraz:

- Aurkezpena: nondik zatoz, zergatik etorri zara?
- Iritsi zinenean dena espero zenuen bezalakoa zen?
- Ezagutzen duzu Atzerritarren Legea?
 - Nola eragiten dizu ekonomian? Lana)
 - Etxebizitza aurkitzeko, zer moduz? Zailtasunak
 - Hezkuntzan/prestakuntzan, ikastaro edo ikasketaren bat egiten ari zara edo egin duzu
 - Zer iritzi duzu zure osasun-eskubideei buruz?
- Modu irregularrean egon bazara/bazaude, zer baldintza zen/da betetzen ez zenuena?
- Pertsona irregularra dela uste duzu? Eta bizitza normala daramazu besteekin harremanetan jartzeari dagokionez, herritarrengan parte hartzeari dagokionez.
- Zer iritzi duzu erregularizatzeko baldintzei buruz? Errealista ikusten duzu?
- Oro har, etorkinei erregularizatzea zaila egiten zaiela esango zenuke?
- Amaitzeko, legeak etorkinen integrazioan laguntzen duela uste duzu? Edo gauzak zailtzen dizkizue?
- Lege horretan zerbait aldatu ahal/nahiko bazenu, zer litzateke?
- Beste edozein iruzkin...

Gazteleraz:

- **Presentación:** de donde vienes, por qué viniste...
- ¿Cuando llegaste, todo era como **esperabas**?
- ¿Conoces la **Ley de Extranjería**?
 - ¿Cómo te afecta en la **economía**? Trabajo...
 - Para encontrar **vivienda**, ¿cómo fue? Dificultades...
 - En la **educación/formación**, estás haciendo o has hecho algún curso, estudios...
 - ¿Qué opinas sobre tus derechos en la **salud**?
- Si has estado/estás de manera **irregular**, qué **condición** era/es la que no cumplías?
- Una persona irregular consideras que es una **persona con derecho**? Y llevas una vida normal en cuanto a relacionarte con los demás, **participación en la ciudadanía**...
- ¿Qué opinas sobre las condiciones para regularizarse? Lo ves **realista**?
- ¿En general, dirías que a los inmigrantes se les hace **difícil regularizarse**?
- Concluyendo, consideras que la Ley **ayuda en la integración** de los inmigrantes? U os **dificulta** las cosas?
- Si pudieras/quisieras **cambiar algo** en esa Ley, qué sería?
- Cualquier otro comentario...

V. ERANSKINA: Jazminen elkarrizketa

E1: Bueno, pues si te parece empezamos con la entrevista. Cuéntame un poco, de donde eres, por qué decidiste venir aquí...

